

## GETXOKO HAPO-REN BERRIKUSPENEAN HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA

2012 / 5235. Alkate dekretuaren bidez onartua.

0. SARRERA.....	4
1. AURREKARIAK.....	4
2. LEGE-ESPARRUA .....	5
3. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN HELBURUAK.....	8
4. PARTE-HARTZEAREN IRISMENA. ....	9
4.1 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN FASEAK HAPO BERRIKUSTEKO PROZESUAREN BARRUAN.....	10
4.2 PARTE-HARTZE MOTA BAKOITZERAKO INTERESDUN ETA ERAGINDAKO PUBLIKOAREN DEFINIZIOA ETA ALDE BAKOITZAK BERRIKUSPEN PROZESUAN BETETZEN DUEN ZEREGINAREN DEFINIZIOA. ....	10
4.3 GETXOKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERA MOTEN DEFINIZIOA, INFORMAZIO ETA KONTSULTA TRUKEA ZIURTATZEKO.....	11
4.4 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN IRISMENARI BURUZKO AGIRIAREN EBALUAZIOA ETA DEFINIZIOA. .....	11
5. EGIN BEHARREKO JARDUERAK ETA JARDUKETAK KRONOGRAMAN.....	11
I.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA ETA ALDEZ AURREKO AZTERLANAK. ....	12
I.1.a- ALDEZ AURREKO AZTERLANAK EGITEA. ....	12
I.1.b- EUSKO JAURLARITZARI / BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI KONTSULTA EGITEA.....	13
I.1.c- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN PROPOSAMENA.....	13
I.2- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA ONARTZEA.....	13
I.3- LANTALDEAREN OSAERA. ....	13
I.4- JENDE GUZTIARI IREKITAKO PRESTAKUNTZA HITZALDIAK.....	15
I.5- LANTALDEAREN LANERAKO 1. DEIALDIA. ....	16
I.6- AHOLKU-BATZORDEARI ALDEZ AURREKO AZTERLANEI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.....	17
I.7- ALDEZ AURREKO AZTERLANEI ETA EUSKO JAURLARITZAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN TXOSTENEI BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK IDAZTEA. ....	17
II.- AURRERAKINAREN ATARIKOA. ....	17
II.1.a.- AURRERAKINAREN ATARIKOA IDAZTEA. ....	17
II.1.b.- LANTALDEAREN LANERAKO 2. DEIALDIA. ....	18
II.2- AHOLKU-BATZORDEARI AURRERAKINAREN ATARIKOARI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.....	18
II.3- AURRERAKINAREN ATARIKOARI BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK.....	18
II.4- AURRERAKINAREN ATARIKOA JENDAURREAN JARTZEKO ETA BIDALTZEKO ERABAKIA.....	18
II.5.a.- INGURUMEN SAILBURUORDETZARI KONTSULTA EGITEA. ....	18
II.5.b.- AURRERAKINAREN ATARIKOA JENDAURREAN JARTZEA.....	18
II.5.c.- AHOLKU-BATZORDEARI JENDAURREAN JARRITAKO AURRERAKINAREN ATARIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.....	19
II.6.a.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO LEHENENGO PROZESUARI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN TXOSTENA.....	19
II.6.b.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO LEHENENGO PROZESUARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.....	19
III.- AURRERAKINA. ....	20
III.1- UDAL OINARRI KARTOGRAFIKOA IDAZKETA-TALDEARI EMATEA.....	20
III.2- INDARREKO HAPO-REN TESTU BATEGINA IDAZKETA-TALDEARI EMATEA. ....	20

III.3- INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ERREFERENTZIAZKO AGIRIA HARTZEA.....	20
III.4.a.- AURRERAKINA IDAZTEA.....	20
III.4.b.- IIBEA IDAZTEA.....	20
III.4.c.- LANTALDEAREN LANERAKO 3. DEIALDIA.....	21
III.5- AHOLKU-BATZORDEARI AURRERAKINARI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.....	21
III.6- AURRERAKINARI ETA IIBEARi BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK.....	21
III.7- AURRERAKINA ETA IIBEA JENDAURREAN JARTZEKO ETA SAILBURUORDETZARI BIDALTZEKO ERABAKIA.....	21
III.8.a.- INGURUMEN SAILBURUORDETZARI AURRERAKINARI ETA IIBEARi BURUZKO KONTSULTA EGITEA.....	21
III.8.b.- AURRERAKINA UDALERRI MUGAKIDEEI BIDALTZEA.....	21
III.8.c.- AURRERAKINA JENDAURREAN JARTZEA.....	22
III.8.d.- IIBEA JENDAURREAN JARTZEA.....	22
III.9- AHOLKU-BATZORDEARI JENDAURREAN JARRITAKO AURRERAKINARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.....	23
III.10- INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN AURRETIAZKO TXOSTENA JASOTZEA.....	23
III.11.a.- JENDEAREN AURREAN ERAKUSGAI JARTZEKO PROZESUARI ETA AURRETIAZKO TXOSTENARI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN LABURPEN TXOSTENA.....	23
III.11.b.- JENDAURREKO ERAKUSKETA PROZESUARI ETA AURRETIAZKO TXOSTENARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.....	23
IV.- HAPO BERRIKUSTEKO OINARRIZKO IRIZPIDEEN ETA HELBURUEN ERABAKIA.....	23
IV.1- HAPO BERRIKUSTEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EZARTZEKO ERABAKIA.....	23
IV.2- ESKUMENA URTEBETEZ ETETEA.....	23
IV.3.a.- ERANTZUN GENERIKOAK BIDALTZEA.....	24
IV.3.b.- OINARRIZKO IRIZPIDEEI ETA HELBURUEI BURUZKO ERABAKIA JENDEARI ZABALTZEA ETA HARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.....	24
V.- HAPO-REN BERRIKUSPENAREN HASIERAKO IDAZKETA ETA ONESPENA.....	24
V.1- HAPO-REN BERRIKUSPENAREN HASIERAKO IDAZKETA.....	24
V.2- HASIERAKO ONESPENAREN AURRETIAZKO TXOSTENETARAKO KONTSULTA.....	25
V.3- BIZTANLERIAREN ZENBAKETAREN ZIURTAGIRIA ESKATZEA.....	25
V.4- HASIERAKO IDAZKETAREN AGIRIARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.....	25
V.5- HAPO-REN BERRIKUSPENA HASIERA BATEAN ONARTZEKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIA.....	25
V.6.a.- HERRI-ADMINISTRAZIO ESKUDUNEI KONTSULTA EGITEA.....	25
V.6.b.- HERRI-ADMINISTRAZIOEI JAKINARAZPENA HELARAZTEA.....	26
V.6.c.- HASIERAKO AGIRIA JENDAURREAN JARTZEA.....	26
V.7- AHOLKU-BATZORDEARI HASIERAKO IDAZKETARI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.....	26
V.8- IDAZKETA-TALDEARI ALEGAZIOAK BIDALTZEA.....	27
V.9- ALEGAZIOEI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN BANAKAKO TXOSTENAK.....	27
V.10.a.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUARI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN LAPURPEN TXOSTENA.....	27
V.10.b.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.....	27
V.11- AHOLKU-BATZORDEARI INFORMAZIOA BIDALTZEA.....	27
V.x- PARTE-HARTZE PROZESUA ERREPIKATZEKO AUKERA.....	27

<b>VI.- HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BEHIN-BEHINGOZ ONARTZEA.</b>	27
VI.1- HAPO-REN BERRIKUSPENA BEHIN-BEHINGOZ ONARTZEKO ERABAKIA.	28
VI.2.a.- EHLAB-I AGIRIEI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.	28
VI.2.b.- INGURUMEN SAILBURUORDETZARI KONTSULTA EGITEA.	28
VI.2.c.- NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOARI KONTSULTA EGITEA.	28
VI.2.d.- HERRI-ADMINISTRATIOEI JAKINARAZPENA EGITEA.	28
<b>VII.- HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BEHIN BETIKO ONARTZEA.</b>	28
VII.1- EHLAB-EN, NEKAZARITZA MINISTERIOAREN ETA INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN TXOSTENAK JASOTZEA.	29
VII.2- SEKTORE-TXOSTENEI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN TXOSTENA.	29
VII.3- SEKTORE-TXOSTENEI ETA IDAZKETA-TALDEAREN TXOSTENARI BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK.	29
VII.4- HAPO-REN BERRIKUSPENA BEHIN BETIKO ONARTZEA.	29
VII.5- INGURUMEN-ERAGINAREN ADIERAZPENA IDAZTEA.	29
VII.6- TESTU BATEGINA IDAZTEA, UDAL ERABAKIAREN ARABERA.	29
VII.7.a.- HAPO-RI BURUZKO TESTU BATEGINA FORU ALDUNDIAN ERREGISTRATZEA.	29
VII.7.b.- TESTU BATEGINA EUSKO JAURLARITZARI BIDALTZEA.	29
VII.8.a.- HAPO-REN BERRIKUSPENA ARGITARATZEA.	29
VII.8.b.- HERRI-ADMINISTRATIOEI (HH AA) JAKINARAZPENA EGITEA.	29
VII.8.c.- INGURUMEN-ERAGINAREN ADIERAZPENA BAO-N ARGITARATZEA.	29
VII.9- AGIRI BATEGINA JENDAURREAN JARTZEA.	29

## 0. SARRERA.

Herritarrek Parte Hartzeko Programa idatzi da Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko prozesuan herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea bermatzeko.

Eskubide hori ziurtatu nahi da hura ahalbideratzen duten mekanismoen definizioaren eta garapenaren bitartez eta mekanismo horiek abiaraziko diren prozedura-faseak ezarriz.

Hori dela eta, agiri honek Hiri-antolamenduko Plan Orokorra formulatzeko, izapidetzeko eta onartzeko fase desberdinak deskribatuko ditu, fase horietan ondoren deskribatuko diren herritarrek parte hartzeko mekanismoak ezartzeko helburuarekin.

Herritarrek HAPO berrikusteko prozesuan parte hartzeko mekanismoen lotura behar bezala ulertu ahal izateko, agiri honen 5. puntuan -edo 2. eranskinean-, jardueren kronogrametan, eragileen kodeei dagokien koloretako kode bat erabili da. Jarduera bakoitzeko definizioen izenburuan kolorezko kodea errepikatzen da.

Era horretan, kolore berdea erabiliko da parte-hartze publikoarekin lotutako jarduerak adierazteko, bai agiri honetatik sortutako parte-hartze mekanismoak direlako edo bai Legean, dagoeneko, aurreikusitako izapideak direlako; kolore hau erabili da, halaber, beste Herri-administrazioen parte-hartzea identifikatzeko ere, erakundeen parte-hartze gisa. Hala ere, Udalak jarriko du abian erakundeen parte-hartzea, kontsultak eginez, txostenak eskatuz eta bidalita zaizkion txostenak jasoz.

## 1. AURREKARIAK.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren 2000ko urtarrilaren 18ko Akordioaren bitartez, Getxo udalerriko Hiri-antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu zen, udalerrriaren lurralde osoa antolatzeko tresna gisa. Planaren atal multzoa, beharrezko zuzenketak egin ondoren, 2001eko uztailaren 23ko 141 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

HAPOk, bere Jarduketa-programaren bitartez, plana bi laurtekotan garatzea ezartzen du.

Aipatutako denbora aldian, lurralde-antolamendurako tresna desberdinen onspenaren eta araudiaren eboluzioaren eraginez eta, bereziki, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legea (LHL) indarrean sartzearen eraginez, ikuspegi, premia eta errealitate desberdinek Plan Orokorren aipatutako irizpideak, helburuak eta aurreikuspenak gainditzea ekarri dute.

LHLren Bigarren Xedapen Iragakorrak zera dio espresuki: *“Nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere zortzi urteko epean”*. Beraz, aurretik aipatutakoa indartzen duen agindu argia da.

Horrenbestez, argi dago Getxoko etorkizuneko aurreikuspenak berriz planteatzeari, irizpideak berrikusteari eta udalerriko hirigintzaren etorkizuna antolatzeari ekin behar zaiola.

Premia hori dagoela jakinda, Udalak Hiri-antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesuari ekin dio eta, Gobernu Batzordearen 2011ko uztailaren 26ko 374 zenbakidun akordioaren bitartez, lanak esleitu ditu eta, Hiri-antolamenduko Plan Orokorren Bulegoa eratu du, Idazketa-taldeari laguntzeko eta azken horren eta Udalaren eta herritarren arteko lotura egiteko.

## 2. LEGE-ESPARRUA

Dokumentu honek ondoren adierazten den araudia erabili du erreferentzia gisa:

- EAEko 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (**LHL**).
- 2/2008 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUA, ekainaren 20koa, lurzoruari buruzko legearen testu bategina onesten duena (**2/2008 LED**).
- 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko Lege Orokorra (**3/1998 L**).
- 2001/42/CE ZUZENTARUA, ekainaren 27koa, EUROPAR LEGEBILTZAR ETA KONTSEILUARENA, hainbat planek eta programak ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa (**2001/42/CE Z**).
- 9/2006 LEGEA, apirilaren 28koa, plan eta programa jakin batzuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa (**9/2006 L**).
- 30/1992 LEGEA, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena (**30/1992 L**).
- 105/2008 DEKRETUA, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa (**105/2008 D**).
- 183/2003 DEKRETUA, uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena. (**183/2003 D**).
- 27/2006 LEGEA, uztailaren 18koa, ingurumen gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta parte-hartza publikorako eskubideak bermatzen dituena. (**27/2006 L**).

Indarreko hirigintzako legeek, “Herritarren parte-hartzearen printzipioa” izenburua duen LHL legearen 8. artikulua bitartez, zera ezartzen dute: hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzeko, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko dela, pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bitartez.

Aurreko printzipio orokorra ondoren zehazten da, 108. artikuluan; artikulua horretan adierazten da egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko dela, eta herritarrei behar bezala parte hartzeko eskubidea bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzen ditu.

2/2008 LEDk herritarren parte-hartzea azpimarratzen du “Herritarren eskubideak” izenburua duen 4. artikulua bitartez. Artikulu horretan adierazten da herritar guztiek honako eskubideak dituztela:

*“c) Administrazio publikoek lurralde-antolamenduaz, hirigintza-antolamenduaz eta haien ingurumen ebaluazioaz duten informazioa irispidea izatea, bai eta onetsitako xedapenen edo administrazio-egintzen kopia edo ziurtagiria eskuratzea ere, legeria arautzaileak ezarri bezala.*

*e) Lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta –egikaritzako eta haien ingurumen-ebaluaziozko edozein tresna prestatzeko eta onesteko prozeduretan egiazki parte-hartzea, alegazioak, oharrak, proposamenak, erreklamazioak eta kexuak aurkeztuz, eta administrazioetik erantzun arrazoitu bat jasotzea, administrazio horren eta kasuan kasuko prozeduraren araubide juridikoa arautzen duen legeriaren arabera.*

*f) Akzio publikoa baliatzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren zehaztapenak gordetzeko, bai eta zehaztapen horiek jasotzen dituzten tresnen ingurumen- ebaluaziorako prozeduretatik eta haiek exekutatzeko proiektuetatik sorturiko erabakiak ere, legeria arautzaileak ezarri bezala”.*

Ondoren, jardueren eta errekurtsoen kapituluaren 48. artikulua egintza publikoa definitzen du:

*"1.- Publikoa izango da administrazio organoen eta administrazioarekiko auzien auzitegien aurrean lurralde- eta hirigintza-antolamenduko legeria eta gainerako tresnak bete daitezela galdatzeko akzioa".*

3/1998 Legeak, halaber, I. Eranskinean, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioa egiteko planen zerrenda jasotzen du. Horien artean daude Hiri-antolamenduko plan orokorrak eta urbanizatu ezin diren lurzoruei eragiten dizkieten aldaketak.

Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren aipatutako betebeharrak hori Ingurumenaren gaineko Ebaluazio Estrategikotik (IEE) sortzen da; ebaluazio hori Europar Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2001/42/CE Zuzentarauan aurreikusitako tresna da, 9/2006 Legearen bitartez lekualdaturik. Horren bitartez, planen eta programen Ingurumenaren Ebaluaziorako administrazio-prozedura bat ezartzen da, plana bera osatzen ari den bitartean modu paraleloan eta interaktiboan egin behar dena, garapen prozesuan eta erabakiak hartzeko prozesu osoan zehar.

Parte-hartze publikoa funtsezko osagaia da Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoaren prozesuan, bai aurretiazko esku-hartze fasean, baita kontsulta eta publizitate faseetan ere; beraz, osagai hori hirigintzako legeriak eskatutako parte-hartzearekiko guztiz bateragarria eta integragarria da.

Ingurumenaren Ebaluazio Estrategikoari dagokionez, 9/2006 Legearen 10. artikulua arabera, lege honen ondoretarako, honakoa izango da publiko interesduna:

*"a) Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 31. artikuluan aurreikusitako edozein inguruabarretatik edozein betetzen duen pertsona fisiko edo juridiko oro.*

*b) Irabazi-asmorik ez duen edozein pertsona juridiko, baldin eta ondoko betekizunak betetzen baditu:*

- 1) Bere estatutuetan egiaztatuta dituen helburuen artean, besteak beste, ingurumena edo bere elementu bereziren bat babestea edukitzea eta helburu horiek kasuan kasuko plan edo egitarauak ukitzeko aukera egotea.*
- 2) Legez eratu zenetik gutxienez bi urte igarota egotea eta bere estatutuak ezarrita dauden helburuetara iristeko jarduerak era aktiboan burutzen egotea.*
- 3) Kontsultatutako Tokiko Erakundeak; hauek planaren iraunkortasunari buruzko berriazko aipamena egin dezakete".*

30/1992 Legearen 31. artikulua horrela zehazten du interesdunaren kontzeptua:

*"1. Administrazio prozeduran hauek jotzen dira interesduntzat:*

- a) Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo bidezko interesen titular modura.*
- b) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketan eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera eman ez prozedurari.*
- c) Ebazpenak uki ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.*

*2. Ekonomiararen eta gizartearen interesen ordezkari diren elkarte eta antolakundeak bidezko talde-interesen titularak izango dira legeak aitortutako moduan.*

*3. Interesdun izatea harreman juridiko eskualdagarraren baten ondorioz sortua bada, eskubideduna izango da ondorengo interesduna, prozedura edozein urratsetan dagoela ere".*

9/2006 Legearen arabera, Eragindako Herri-administrazioetat joko dira, eta lege honen ondoretarako bakarrik, hurrengo alorretan eskumen espezifikoak dituztenak:

Biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, faktore klimatikoak, ondasun materialak, kultura ondarea, ondare historikoa barne, paisaia, lurralde-antolamendua eta hirigintza.

105/2008 Dekretuaren 31. artikulua aurrekoa osatzen du eta Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioaren menpe egon behar diren hirigintza planetarako beharrezko dokumentazioa ezartzen du, honela:

*"Hirigintza-antolamenduko planei buruzko dokumentazioa.*

*1.- Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Legea aplikatzearen bidez ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari (IEBE) lotuta egon behar duten hirigintza-plan guztiek, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean eskatutako gainerako berriazko dokumentazioa aparte utzi gabe, gutxienez honako dokumentazio hau bildu beharko dute hirigintza-antolamenduko plan jakin batzuetarako:*

*a) Plangintza-ahalmena baliatzeko datuak bilduko dituen informazio guztia jaso beharko duen informazioko eta justifikazioko memoria. Memoria horrek, halaber, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzen direnetik hautatu arte jarraitutako prozesua aipatu beharko du esanbidez, prozesu horretan herritarren parte-hartzearekin egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa kontuan hartuta. Ildo horretan, bi sexuen parte-hartze orekatua erraztu edo sustatuko da, eta, hala badagokio, Plangintzako Aholku Batzordearen aginduzko txostena eta bere gain hartutako erabakien justifikazioa txertatuko dira.*

*b) Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostena. Txosten horrek garapen iraunkorraren printzipioan oinarrituta hartu beharreko antolamendua eragin beharko du. Ingurumen-iraunkortasunari buruzko txosten horrek, halaber, antolamenduen xede den eremuaren arrisku naturalen mapa bat izango du. Horrez gain, planean bildutako aurreikuspenetarako lurzoru horiek duten harrera-ahalmenari buruzko azterlan bat gaineratuko da. Azterlan horrek honako txosten hauek hartuko ditu kontuan, aginduzkoak direnean eta legeriari jarraiki prozeduraren ondorengo fase batean egin behar ez direnean soilik:*

- 1) Administrazio hidraulikoak eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren baliabide hidrikoei eta jabari publiko hidraulikoaren babesari buruz egindako txostena, araudi sektorialaren arabera aginduzkoa denean.
- 2) Kosta-administrazioak itsas/lehorreko jabari publikoaren mugaketari eta babesari buruz egindako txostena, hala badagokio.
- 3) Errepideen eta lehendik zeuden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioek planean bildutako aurreikuspenen eraginari buruz egindako txostena. Hirigintza-jardunak zerbitzu-ahalmenean duen eragina aztertuko du txosten horrek.

- c) Informazioko, egitura-antolamenduko eta antolamendu xehatuko planoak, hala badagokio.
- d) Hirigintza-araudia (Eraikuntza eta Urbanizazio Ordenantzak eta Katalogoak barnean hartuta daudela ulertuko da).
- e) Hirigintza-jardunaren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterlana.
- f) Iraunkortasun ekonomikoaren memoria; bertan, hirigintza-jardunak beharrezkoak diren azpiegituren ezarpenak eta mantentzeak, edo emaitzazko zerbitzuak abian jartzeak eta emateak eraginpean hartutako ogasun publikoetan duen eragina haztatuko da bereziki, baita hirigintza-jardun horrek urbanizazioaren xede den lurzorua kendu ondoren produkzio-erabileretara zuzendutako lurzoruaren azalera eta egokitzean duen eragina ere.
- g) Hirigintza-eraikigarritasunaren gehieneko eta gutxieneko estandarrak betetzearen, biztanleriaren bizitegi-hazkunderen gehieneko zifra (etxebizitza kopuruaren bidez eta lurraldearen antolamendurako tresnetan adierazia) errespetatzearen eta, oro har, hirigintza-plangintza lurralde-plangintzara egokitzearen justifikazioa.

2.-Dokumentazio hori aginduzkoa izango da, eta ingurumen-organoari aurkeztu beharko zaio, organo horrek, Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena bideratu aurretik, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak agindutako ingurumen-memoria egin dezan. Memoria horrek artikulua honen lehen paragrafoa b) letran aurreikusitako txosten sektorialak hartu beharko ditu kontuan bereziki”.

Ondorioz, 183/2003 Dekretuaren 7. artikulua definituko du ingurumen-eraginaren baterako ebaluazio-azterketaren tramitazioa:

“Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketaren tramitazioa.

- 1.- Plan bat lantzen duten administrazio-organismoak edo pertsona fisiko nahiz juridikoek ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa bat erantsi beharko diote, eta honen edukia I. Eranskinean xedatutakoari egokituko zaio.
- 2.- Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa, plana osatzen duten gainerako dokumentuekin batera, indarrean dagoen legeriak dagokion planaren tramitaziorako ezartzen dituen jendaurreko informazio, entzunaldi eta txostenen izapideak gainditu beharko ditu lehen faseetatik.
- 3.- Planaren tramitazio-prozeduran bere jendaurreko informazioa aurreikusita ez badago, tramitazio horretaz arduratzen den organoak gutxienez 30 eguneko epean jendaurrean jarriko du plana, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketarekin batera.
- 4.- 2. atalean aipatutako izapideen ondorioz planaren dokumentuetan aldaketarik badago, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa aldaketa horren edukiari egokitu beharko zaio”

Azkenik, 27/2006 Legeak, 16. artikuluan, aplikatzeak diren prozedurak ezarri edo tramitatzekoan, honako alde hauek zaintzera behartzen ditu Herri-administrazioak:

- a) Ohar publikoen edo bestelako bitarteko egokien bitartez (besteak beste, elektronikoak, horiek erabilgarri daudenean), jendeari edozein plan, programa edo izaera orokorreko xedapen proposamen jakinaraztea, edo, hala dagokionean, haien aldaketa edo berrikuspenen berri ematea, eta aipatutako proposamenei buruzko dagokion informazioa ulergarria izan dadin eta jendearen eskura jarri dadin zaintzea, baita erabaki-prozesuetan parte hartzeko eskubideari buruzko informazioa eta oharra edo alegazioak aurkeztu dakizkiokeen Herri-administrazio eskudunari buruzkoa ere.
- b) Jendeak oharra edo iritzia adierazteko eskubidea izatea, aukera guztiak zabalik daudenean, planari, programari edo izaera orokorreko xedapenari buruzko erabakiak hartu baino lehen.
- c) Erabaki horiek hartzerakoan, parte-hartza publikoaren emaitzak behar bezala kontuan hartzea.
- d) Jendeak adierazitako oharra edo iritzia aztertu ondoren, hartutako erabakiak eta erabaki horien oinarri diren arrazoiak eta gogoetak jakinaraziko zaizkio jendeari, tartean, baita herritarrek parte hartzeko prozesuari buruzko informazioa ere.”

Lege berak zera definitzen du 2. artikuluan:

“1.- Publikoa: edozein pertsona fisiko edo juridiko, eta haien elkarte, erakunde eta eraturako taldeak, aplikagarria zaien araudiari jarraiki.

2.- Pertsona interesdunak:

- a) Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikuluan ezarritako inguruabarretatik edozein betetzen duen pertsona fisiko edo juridiko oro.
- b) Irabazi-asmorik ez duen edozein pertsona juridiko, baldin eta lege honen 23. artikuluan ezarritako ondoko betekizunak betetzen baditu:
  - i) Bere estatutuetan egiaztatuta dituen helburuen artean, besteak beste, ingurumena edo bere elementu bereziren bat babestea edukitzea eta helburu horiek kasuan kasuko plan edo egitarauak ukitzeko aukera egotea.
  - ii) Legez eratu zenetik gutxienez bi urte igarota egotea eta bere estatutuetan ezarrita dauden helburuetara iristeko jarduerak era aktiboan burutzen egotea
  - iii) Bere estatutuen arabera, jarduketak edo administrazioaren omisioak eragindako lurralde-eremuan garatzea bere jarduerara.

LHLren 109. eta 110. artikuluetan ezarritakoa betetz, Udal-plangintzako Aholku-batzordea dauka Getxok eta Udaleko Osoko Bilkurak 2007ko uztailaren 27an onartu eta urte bereko abuztuaren 21ean Bizkaiko Aldizkari

Ofizialean argitaratutako udal-erregelamendu bidez zehaztuko da udal-Udal-plangintzako Aholku-batzordea nork osatuko duen eta batzorde horrek nola jardungo duen, eta nola eratu eta desegingo den.

Udalerrri baten egiturazko antolamendua berrikusteko, LHLren 108. artikulua ezartzen du herritarrek parte hartzeko programa bat finkatu beharko dela; programa horretan, udalerrriaren ezaugarrien arabera, herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko dira. Bestek beste, honako mekanismoak:

- a) *Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeke erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.*
- b) *Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legedian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- c) *Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako lege eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagut eta uler ditzan.*

Orain arte azaldutakoak ez du baztertzen aplikatzekoa den araudian aldaketak gertatu izanaren ondoriozko derrigorrezko beharrezko egokitzapenak egin behar izatea; egokitzapen horiek eragina izan dezakete agiri honetan xehatzen den prozesuaren diseinuarengan.

### 3. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN HELBURUAK.

Herritarrek Parte Hartzeko Programa Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorra Berrikusteko Prozesuan zehar Getxo udalerriko herritarren parte-hartzerako estrategia definitzen duen agiria da; eta aipatutako parte-hartzea zehatz-mehatz garatzen du idazketa-prozesuaren fase bakoitzaren barruan.

Ondoren adierazten dira Getxoko Udalak, herritarren parte-hartzea eraginkor bilakatzeko, oinarri hartu dituen helburuak:

- Plangintza berrikusteko prozesuan iritziak, sentsibilitateak, kezkek, iradokizunak, alegazioak, eta abar adierazteko herritarrek daukaten eskubidea onartzea.
- Herritarren ekarpenak sustatzea.
- Herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan hasieratik inplikatzeko, informazioaren ulergarritasuna erraztuz.
- Udalaren eta herritarren artean informazioa trukatzeko esparru egokia sustatzea.
- Herritarren ekarpenak erabiltzea eta bideratzea, Getxoko hirigintza hobetzeko prozesuan sartzeko.
- Herritarrengandik udalerrriaren hiri-garapenerako erabilgarria den informazioa eskuratzea.
- Herritarren interesak aintzat hartzea, bizi diren eta aisialdi, ekonomia, kultura eta bestelako jarduerak burutzen dituzten inguruneari dagokionez.
- Udalerriko herritarrek euren inguruneari ematen dizkieten hirigintza-balioak identifikatzea.
- Udalerriko hirigintzak eragindako eta interesdunak diren sektore eta kolektibo guztiak identifikatzea, haiei komunikatzea eta entzutea.
- Ahal den neurrian, eta erabakiak hartu aurretik, udalerriko sektoreak eta kolektiboak aukeren eta alternatiben garapenean inplikatzeko.
- Parte hartzeko eskubideari eta eskubide hori gauzatzeko era desberdinei buruzko informazioa ematea herritarrei.
- Udalerriri hirigintzako gai buruzko informazioa etengabe ematea.
- Hirigintzako egintzen bideragarritasuna sustatzea, interesdunak hasieratik inplikatuz.
- Udalak, udalerriko interesdun eta eragindako segmentuei kontsultatu gabe, hirigintzaren esparruan egintza garrantzitsurik egiten ez duela ziurtatzea.
- Udalaren egintzak, ahal den neurrian, herritarren interesei eta kezkei erantzuten diela ziurtatzea.
- Udalerriko herritarrek berrikuspen-agirian garatzea proposatzen den hiri-eredua ulertzeko aukera dutela ziurtatzea; halaber, agiri hori hurrengo urteetan hartuko diren hirigintzako jardueretarako eta erabakietarako gida moduan erabiliko da.
- Udalerriko herritarrek Plan Orokorren Berrikuspenaren emaitza udalerrian aplikatzearen ondorioz proposatutako ekintzak ulertzeko aukera izango dutela ziurtatzea.
- Alde interesdunek Plan Orokorren Berrikuspenaren emaitza udalerrian aplikatzearen ondorioz proposatutako ekintzak ulertzeko aukera izango dutela ziurtatzea.
- Administrazioaren gardentasuna areagotzea erabakiak hartzerakoan.

Herritarrek parte hartzeko agiri honetan proposatutako eredia honako bi parametroetan oinarritzen da: alde batetik, udalerriko herritarren gaitasuna bera hirigintzako kontzeptuekiko erantzukizuna eta gizarte, ekonomia eta udalerriko ereduaren errealitatearen kudeaketarekiko erantzukizuna euren gain hartzeko; eta bestalde, Udalak, historikoki administrazioaren eskumenekoa bakarrik izan den gaitasuna herritarrei hedatzeko nahia.



#### 4. PARTE-HARTZEAREN IRISMENA.

Aurretik esan den bezala, herritarren parte-hartzea herritarrek haiei zuzenean eragiten dieten gai publikoei buruzko erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko jardueren, prozesuen eta tekniken multzoa da. Gaur egungoa gizarte konplexua da eta herritarrek parte hartzearen helburua da tokian tokiko biztanleak bizi diren ingurunea eraldatzeko geroago eta gaitasun handiagoa daukaten gizarte subjektu bilakatzea.

Aipatutako irizpidearen ildotik jarraituz, herritarrek parte hartzeko programa hau adierazitakoa ezartzera bideratuta dago, baina prozesu oso zehatzari, bereziari eta konplexuari dagokionez, Hiri-antolamenduko Plan Orokorren Berrikuspena formulatzeko, izapidetzeko eta onartzeko prozesua, alegia; prozesu horretan, nahitaezko zenbait formaltasun tekniko eta juridiko bete behar da, eta, gainera, aipatutako prozesuan oso izaera desberdineko interes publikoak eta partikularrak daudela ahaztu gabe. Interes horiek aintzat hartu beharko dira, nahi ez diren egoerak sor ez daitezzen.

Horrenbestez, programa honek oreka onargarria bilatu nahi du Getxoko herritar guztiei zabalduz ahalik eta parte-hartzerik zabal eta malguenaren eta egituratze operatibo eta praktikoaren artean, azken hori ezinbestekoa baita idazketa-taldeak, Aholku-batzordeak eta Udalbatza osatzen duten hirigintzako organoek aipatutako parte-hartzea onartu, sintetizatu eta aintzat hartu ahal izateko, erlazio eta asimilazio hurrenkeraren arabera.

Era horretan, herritarrek parte hartzeko programa antolatzeari esker –antolatutako eta denboran zehar jarraitutako prozesu gisa sortua, idazketa-taldeak lanak idazteko prozesuarekin, Aholku-batzordeak horiek onartzeko eta dagokion txostena idazteko eta Udaleko hirigintzako organoek onartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuarekin koordinatzeko irizpidearekin- uste da udalerriko herritarren iritzia modu argian eta zehatzean iritsi ahal izango dela Udalbatzara, azken honek onartu beharreko plan orokorraren berrikuspenari buruzko hirigintza-espeditzeari dagokionez.

*“Plangintza eta hirigintzako antolamenduko gainerako tresnak izapidetu eta onartzea”* izenburua duen LHLren IV. kapituluaren eskatzen denarekin batera, agiri honek herritarren parte-hartzea honako osagaiekin osatzen den prozesu jarraitutzat hartzen du: informazioa – prestakuntza; analisia eta parte-hartzea lanak osatzeko fase desberdinetan irekitako edukiei buruzko kontsulten eta eztabaiden bitartez; eta, azkenik, aipatutako edukiei buruzko laburtutako ondorioak eta iritziak. Era horretan, herritarrek parte hartzeko programa lau alditan egituratzen da, hurrengo deskribapenaren arabera:

- Lehenengo aldia, idazketa-taldearen eta plana formulatzeko prozesuan parte hartu nahi duten herritarren arteko harremana nabarmentzen da, ondoren gauzatuko den garapenaren arabera.
- Bigarren aldia, lantaldean (aurrerantzean Lantaldea) antolatutako herritarren ondorio eta iritzi guztiak edo batzuk kontuan hartuta idazketa-taldeak proposamena egin ondoren, Getxoko Udal-Plangintzaren Aholku-Batzordeari aurkeztuko zaio proposamen hori, hark bere iritzia eman eta txostena egin dezan.
- Hirugarren aldia, Aholku-batzordeak txostena egin ondoren, idazketa-taldeak idatzitako agiria eta lehen aldia parte hartu duten herritarren edukia eta Aholku-batzordearen txostena eta xedapenak aurkeztu dira, Udalaren hirigintzako organoak dagokion erabakia har dezan eta, horren ondoren, izapideekin jarraitzeko eta, hala dagokionean, dagokion agiria jendaurrean jartzea onartu ahal izateko.
- Laugarren aldia, HAPO berrikusteko agiri desberdinak jendaurrean jarriko dira (Aurrerakina eta Hasierako idazketa), LHLk ezartzen duen obligazioa betez.

Bada herritarrek parte-hartze zuzena, aberatsa eta antolatua gauzatu ahal izan dezaten oso printzipio garrantzitsu bat: herritarrei prestakuntza eskaintzea, udalerriko hiri-antolamenduko plan orokor baten edukia eta planak benetan ematen dituen aukerei buruzko informazio erraza, argia eta praktikoa eskaintzearen bitartez. Hartara, programa honen hurrengo ataletan diseinatuko diren ondorengo lan-saioetako eztabaidetan, plan orokor bateko parte-hartze eta osaera prozesuan kontuan hartu behar ez diren aldeak eztabaidatu beharra saihesteko, euren izaera, irismena eta edukiagatik, ez dagozkion gaiak direlako.

Aurrekoa ez da teknokrazia harroputzari dagokion irizpidetzat hartu behar, baizik eta, hiri-antolamenduko plan orokor baten dokumentazioak eta zehaztapenak benetan barne har ditzaketen aldeak zuzen aztertze saiakera moduan baloratu behar da, plan orokor batean ezarri daitezkeen zehaztapenen alde kritikoak eta interesgarriak aztertzea oztopatzen duten alferrikako esfortzuak eta denbora galerak saihestuz.

Azkenik, Herritarrek Parte Hartzeko Programak ondorengo edukien definizioaren bitartez gauzatzen ditu adierazitako helburuak:

- Parte-hartzearen fase desberdinak definitzea HAPO berrikusteko prozesuaren barruan, eta horietako bakoitzean aztertzeko gaiak.
- Parte-hartze mota bakoitzerako interesdun eta eragindako eragileak eta publikoa definitzea eta berrikuspen prozesuan alde bakoitzak garatuko duen zeregina definitzea.
- Egin beharreko jardura motak definitzea eta jardueren programazioa –kronogramak- eta laneko programak egitea, informazio trukea eta kontsulta ziurtatzeko.
- Parte hartzeko prozesuaren Ebaluazioa eta Herritarrek Parte Hartzeko Programaren emaitzak laburtzen dituen agiria definitzea.

#### 4.1 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN FASEAK HAPO BERRIKUSTEKO PROZESUAREN BARRUAN.

Programa hau Plan Orokorra idazteko lanak gauzatzeko egin beharreko jardueren Kronogramarekin bat egiten duten parte-hartzearen zazpi fasetan egituratu da. Hauek dira aipatutako faseak:

- I. Herritarrek Parte Hartzeko Programa eta Aldez Aurreko Azterlanak.
- II. Aurrerakinaren Atarikoa.
- III. Aurrerakina.
- IV. Berrikuspenaren Irizpideen eta Helburuen Erabakia.
- V. HAPOren hasierako Idazketa eta Onespena.
- VI. HAPOren behin-behineko onespena.
- VII. HAPOren behin betiko onespena.

#### 4.2 PARTE-HARTZE MOTA BAKOITZERAKO INTERESDUN ETA ERAGINDAKO PUBLIKOAREN DEFINIZIOA ETA ALDE BAKOITZAK BERRIKUSPEN PROZESUAN BETETZEN DUEN ZEREGINAREN DEFINIZIOA.

Plan Orokorraren Berrikuspena idazteko oinarritzat hartzen diren irizpideetatik eratorritako erabakiek, nolabait, interes desberdinak dituzten pertsona askorengan daukate eragina. Herritarren parte-hartzea prozesu konplexua da eta, herritarrek zeregin eraikitzailea garatzeko aukera dute erabakiak hartzeko prozesuan. Parte-hartzearen prozesua antolatzearen helburua da ekarpen eraikitzailea edo onuragarria egitea, informazioaren elkartrukea mesedetzen duelako eta alde bakoitzak garatu dezakeen zeregina argi eta garbi definitzen duelako.

Herritarrek Parte Hartzeko prozesuan, funtzio desberdinak dituzten hiru Eragile motak esku hartzen du:

- Getxoko Udalak, HAPOren berrikuspenaren sustatzaile gisa.  
5. puntuak kolore horiarekin identifikatzen dira herritarren parte-hartzearekin loturarik ez duten Udalaren berezko jarduerak.
- Idazketa-taldeak, Berrikuspen-lanen esleipendun eta koordinatzaile gisa.  
5. puntuak kolore urdinarekin identifikatzen dira herritarren parte-hartzearekin loturarik ez duten idazketa-taldearen berezko jarduerak.
- Interesdunek, horien artean: publikoa –banaka edo elkarteen bitartez– parte-hartzearen prozesuaren protagonista gisa eta Administrazioaren erabakien azken hartzaile gisa; eragindako eskumenak dituzten Administrazio desberdinak, eta udal mugakideak. 5. puntuak kolore berdearekin identifikatzen dira herritarren parte-hartzearen jarduerak.

Herritarrek Parte Hartzeko Programa honetan Publikotzat definitzen da “Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren berrikuspenarekin lotutako erabakiak hartzeko prozedurek eragindako edo plangintzaren esparruan interesa duen pertsona fisiko edo juridiko oro”.

#### Parte-hartzeari dagokionez, sustatzaile gisa Getxoko Udalak dauzkan funtzioek honako hau hartzen dute barne:

- a) Herritarrek parte hartzeko aukera egokiak dauzkatela ziurtatzea.
- b) Herritarrei aurkeztutako informazioa argia, egiazkoa eta ulergarria dela ziurtatzea.
- c) Parte-hartzearen prozesuari denbora, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea.
- d) Herritarren ikuspuntuak arretaz entzutea eta adostasuna lortzeko lan egitea.
- e) Ahal den neurrian, herritarren interesak, ekarpenak, oharrak eta gomendioak kontuan hartzea eta horiei erantzutea.
- f) Azken erabakiak hartzea.
- g) Herritarren ekarpen eta proposamenei behar bezala arazoitutako erantzuna ematea eta erantzunok banaka jakinaraztea.

#### Publikoaren zereginetik zera hartzen dute barne:

- a) Parte-hartzeari denbora eta esfortzua eskaintzea.
- b) Adostasunaren alde lan egitea, arduratzen duen aldeaz gain beste batzuek ere esku hartzen dutela eta Administrazioaren sektore desberdinetako solaskideek, solaskide ekonomikoek eta beste batzuek ere esku hartzen dutela kontuan hartuta.
- c) Udalerriari buruzko bere ezagupen bereziaren ekarpena egitea, arazoak eta interesak identifikatu eta konponbideak hobetu eta aberasteko.
- d) Proposamenak berrikustea eta, proposamen horien alternatiba gisa, justifikatutako alternatibak edo beste aldaera batzuk proposatzea.

#### 4.3 GETXOKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERA MOTEN DEFINIZIOA, INFORMAZIO ETA KONTSULTA TRUKEA ZIURTATZEKO.

Atal honetan, egin beharreko jarduerak definitu besterik ez da egiten eta ez da jardueren eta lanen kronogramaren programazioari dagokion inolako alderik garatzen, aipatutako kontzeptuei agiri honen 5. puntuan zehaztasun handiagoz heltzen zaielako.

- Hiri-antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenean egindako edozein ekintzari dagokion dokumentazioa prestatzea: erreferentziazko edozein agiri, proposamen, aurrerakin, azterlan eta/edo analisi idaztea helburu duten jarduerak, tartean, Herritarrek Parte Hartzeko Programa bera.
- Hiri-antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenean osatzen duten agiri desberdinen informazioa eta kontsulta: jendeari eta interesa duen edonori, partikularra, erakundea edo elkarteak izan, informazioa ematea eta jendaurrean aurkeztea helburu duten jarduerak; baita horiei egindako kontsultak ere.
- Publizitatea: herritarrek parte hartzeko aukerak, edozein agiri idazteko erabilitako irizpideak, dauden alternatibak eta/edo proposatutako edo onartutako agiriak ezagutzera ematea helburu duten jarduerak.
- Herritarren Parte-hartzearen jarduerak bereziak eta zehatzak: proposatutako edo onartutako edozein agiriri buruzko informazioa emateak, kontsultak egiteak edo publizitateak haratago doazen ezaugarriak eta zehaztasunak dituzten ekintzak.
- Jarraipena: adierazleak zehaztea eta egiaztatzea edo adierazleak datuak lortzea helburu duten ekintzak, Herritarrek Parte Hartzeko Programaren betetze-maila, bere eragina eta/edo bere helburu eta emaitzen lorpen-maila ezagutzeko.

#### 4.4 HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN IRISMENARI BURUZKO AGIRIAREN EBALUAZIOA ETA DEFINIZIOA.

Hurrengo puntuan parte-hartzea ebaluatuko duten jarduketak edo jarduerak definituko dira. Kontsulten eta inkestaren bitartez, fase desberdinetako edukiei buruzko informazioa bilduko dute, baita parte-hartzearen prozesuari berari buruzkoa ere; informazioa gero aztertuko da eta **I.5**, **II.1.b**, **II.5**, **III.4.c**, **III.8.c**, **III.8.d** eta **V.6.c**. jardueretan zehaztuko da.

Herritarren Parte-hartzearen emaitzak laburtzen dituen agiria, hasierako onespenearen fasean jendaurrean azkeneko jarri ondoren, **V.10.a** jarduerak gisa, idazketa-taldeari helaraziko zaio eta, **V.10.b** gisa, Udaleko zerbitzu teknikoari.

#### 5. EGIN BEHARREKO JARDUERAK ETA JARDUKETAK KRONOGRAMAN.

Euskal Autonomia Erkidegoko plan orokorraren osaera eta izapideak zehazten dituen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legerari berriz helduta (87, 89, 90 eta 91. artikuluetan), honako faseak nahitaezkoak izango dira plan orokor baten berrikuspenean izapidetzeko:

- I. HAPOren idazketaren Aurretiazko Faseak: Hasteko Erabakia, Aurrerakina eta Oinarrizko Irizpideak eta Helburuak Erabakitzea.
- II. HAPO idaztea: Idazketa eta Hasierako Onspena, Behin-behineko onspena eta Behin betiko onspena.

Horiek izapidetzeko nahitaezkoak dira jendaurrean jartzeko hainbat aldi (90 eta 91. art.) eta ondoren azaltzen diren faseak derrigorrezkoak izango dira plan orokor baten berrikuspenean izapidetzeko:

- a) aurrerakin agiri bat jendaurrean jartzea eta iradokizunak eta aukerak biltzea (2 hilabeteko iraupena, irizpideak eta helburuak erabaki aurretik);

- b) hasierako idazketa jendaurrean jartzea eta alegazioak biltzea (hilabeteko iraupena behin-behineko akordioa baino lehen); behin-behingo onartutako agiriaren egiturazko antolamendua nabarmen aldatu behar izango balitz, hasierako tramite hori errepikatzeko aukerarekin.

LHLren 108. artikulua –herritarrek parte hartzeko programa baten bitartez- helburuak, estrategiak eta mekanismoak ezartzera behartzen du, idazketa prozesuan parte hartzeko eskubidea ahalbidertzeko. Hiria osatzeko erabaki estrategikoei edo horien alternatibei buruz jendeari zuzenduta azalpen-saioak bakarrik azaltzen dira zehatz-mehatz edo, bestela esanda, aurrerakinaren edukiari buruzkoak.

Era berean, eztabaida larriak egonez gero udalerrri mailan herritarrei kontsultak egiteko aukera ere aipatzen da.

Azkenik, eta programa honen 2. puntu dagoeneko aipatu den bezala, legeak Udal-plangintzako Aholku-batzordea eratzea exijitzen du, *“aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez kontzertazio sozialerako funtzioak beteko dituen”*, udal plangintza formulatzeko prozeduran; hirigintza edo lurraldeko azterlanak, arauak eta agiriak ezagutzeko ahalmenarekin eta, behin HAPO idazten hasita, txosten bat bidaltzeko obligazioarekin (aztergai dugun kasuan); txosten hori kontuan hartzen ez bada, horren arrazoia adierazi beharko da.

Programa honek herritarren parte-hartzearekin lotutako LHLren eta ingurumenaren arloko legeen betebeharrak jasotzen ditu, eta gainditu egiten ditu aurrerantzean garatzen diren jarduerekin.

## I.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA ETA ALDEZ AURREKO AZTERLANAK.

Fase honen helburu nagusia da Herritarren Parte-hartzeak Hiri-antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesu osoan zehar kontuan hartuko dituen oinarrien definizioa ezartzea; baita beharrezko informazioa lortzea eta laburtzea ere, Aldez Aurreko Azterlan moduan, berrikuspen lanei ekiteko.

Ondoren zehazten da proposatutako lanen eta jardueren kronograma:

I.1	<b>a. Aldez aurreko Azterlanak Egitea. Lurralde-antolamenduko tresnen eragina aztertzea:</b> Bizkaiko Errepideen LPS, Kostaldeak Babesteko eta Antolatze LPS, EAEko Trenbideen LPS, Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze LPS, Hezeguneen LPS, Nekazaritza eta Basoak antolatze LPS, Bilboko Aireportuaren Plan Zuzentzailea, Bilboko Portuaren Guneak Erabiltzeko Plana, Bilbo Metropolitarraren LPP, etab. <b>Etxebizitza erabileraren analisia:</b> etxebizitza gisa erabiltzen diren planta berriko eraikinei dagozkien obra-lizentzia guztien analisi sistematikoa.	<b>b. Kontsulta Eusko Jaurlaritzari / Bizkaiko Foru Aldundiari.</b>	<b>c. HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN PROPOSAMENA Udaleko Zerbitzu Teknikoen eskutik.</b>
I.2	<b>HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN onespina Udal Organo Eskudunaren aldetik.</b>		
I.3	<b>Lantaldearen eraketa.</b>		
I.4	<b>Jende guztiarentzako prestakuntza hitzaldiak.</b>		
I.5	<b>Lantaldeko lanerako 1. Deialdia Aldez Aurreko Azterlanei buruzkoa.</b>		
I.6	<b>Aholku-batzordeari Aldez aurreko Azterlanei buruzko kontsulta egitea.</b>		
I.7	<b>Aldez aurreko Azterlanei eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko txostenei buruzko udal txosten teknikoak idaztea.</b>		

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta **kolore horiz** azpimarratuko dira Udalerako eta kolore **urdinez**, berriz, idazketa-talderako.

Herritarren eta erakundeen parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharreko jarduerak ezartzeko; eta **kolore berdez** adieraziko dira.

Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

### I.1- HAINBAT JARDUKETA

#### I.1.a- ALDEZ AURREKO AZTERLANAK EGITEA.

Idazketa-taldea zera landuko du: lantaldearen betebeharrak desberdinen laburpena eta horien arteko bateragarritasuna aztertuko du; baita indarreko HAPOn programatutako lurzoruaren egikaritze-maila aztertu ere, azken 10 urteotan eraikitako etxebizitza berriei batera.

### I.1.b- EUSKO JAURLARITZARI / BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI KONTSULTA EGITEA.

LHLk existitzen diren arriskuei eta ingurumenaren baldintzatzaileei buruzko txostena eta antolamenduak errespetatu behar dituen kultura ondarearen eta natura-ingurunearen babesari buruzko txostena organo eskudunei – bai Eusko Jaurlaritza mailan, bai Foru Aldundi mailan – eskatzera behartzen du HAPOren Berrikuspenaren sustatzailea. Txosten horiek, gehienez, bi hilabeteko epean bidaliko dira.

Honako hauei zuzenduko zaizkie hurrengo eskaerak:

- Babes zibilar buruzkoak, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari / Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologia Zuzendaritzari eta Foru Aldundiko Lehendakaritza Departamentuari / Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuari.
- Ingurumenari buruzkoak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuari.
- Kultura ondareari buruzkoak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari / Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza eta Foru Aldundiko Kultura Departamentuari.
- Natura-inguruneari buruzkoak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuari.

### I.1.c- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN PROPOSAMENA.

Udal zerbitzu teknikoen "Herritarrek Parte Hartzeko Programaren Proposamena" izeneko agiria idazteari ekingo diote.

### I.2- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA ONARTZEA.

Udaleko organo eskudunak "Herritarrek Parte Hartzeko Programa" onartuko du.

### I.3- LANTALDEAREN OSAERA.

Izaera, baldintzak eta Lantaldean izena emateko prozedura.

Lantalde bat sortzea planteatu da oinarriko parte-hartze sozial zuzena lortzeko tresna gisa, gizarte zibilaren nahiak Plan Orokorren Berrikuspenaren aurretiatzko faseetako eta fase estrategikoetako gai publikoen barne sartzeko helburuarekin.

Lantaldea parte-hartzearen printzipioen arabera antolatutako herritar talde batek osatuko du. Edozein herritarrek parte hartu ahal izango du lantalde horietan, baina, lehenik eta behin, elkarte desberdinei eskatutako ordezkari gaituen bitartez antolatuko dira.

Lantaldea eratzeko, gizartearen espektro orokorra ordezkatzeko bilatuko da eta parte-hartze paritarioa lortzen eta adin segmentu guztiak barne hartzen saiatuko da.

Lantaldea eratzeko helburuarekin, Udalak zabalkunderako dagokion jarduketa egingo du, eta herritarrei eta elkarteei Lantaldean parte hartzeko gonbidapena egingo die. Horretarako, izena emateko dagokion iragarkia bere Web orrian txertatuko du, Lantaldeko edukiari, antolaketaari, lan metodoari eta helburuei buruzko azalpen txiki batekin. Izena emateko, iragarkiarekin batera txertatuko den eredu-orria bete beharko da. Orri horrek, besteak beste, honako datu hauek jasoko ditu: harremanetarako datuak, adierazi dezakeen bizi-esperientzia eta/edo esperientzia profesionala, Lantaldean sartzera bultzatu duten arrazoiak eta bai prestakuntza hitzaldietan (ikus **I.4.** atala), bai ondorengo lan-saioetan parte hartzeko konpromisoa.

Horrez gain, Udala elkarte bakoitzari zuzenduko zaio eta parte hartu ahal izateko dagokion gonbidapena luzatuko die. Elkarrekin gonbidapenarekin batera bidaliko zaien eredu-orria bete beharko dute. Orri horretan, besteak beste, honakoa adierazi beharko dute: behar bezala izendatutako ordezkaria, haren ordezkaria, parte hartzerako bultzatzen duten arrazoiak eta parte hartzeko berariazko konpromisoa. Aipatutako orria Udalaren Web-orrialdean ere eskuragarri egongo da.

Konpromisoaren betebeharra Lantaldeko kide izateko izangai egokia izateko ezinbesteko baldintza izango da.

Izena emateko epea hilabete eta erdikoa izango da, dagokion iragarkia Udalaren Web-orrialdean txertatzen denetik edo elkarrekin parte hartzeko gonbidapena jasotzen dutenetik.

Gehienez 60 lagun aukeratuko dira, guztira, elkarten ordezkarien eta herritar partikularren artean. Elkarrekin ordezkariak ezingo dute, inolaz ere, kide guztien %70eko kopurua gainditu.

Lantaldeko kideak taldeetan egituratuko dira, unean-unean aztertu beharreko gaien premien arabera.

Udalak parte hartzeko eskaerak jaso ondoren, Lantaldean parte hartuko dutenak hautatuko dira, baita ordezkoen zerrenda osatuko dutenak ere. Hautaketa hori egiteko, gizartearen ordezkariak anitzaren irizpidea hartuko da oinarritzat.

Hautaketari ekiteko, lehenik eta behin, elkarteek formulatutako eskaerak aztertuko dira, hurrengo esparruetan lan egiten dutenak hautatzeko, era horretan, sentsibilitate guztiak barne hartuz: ingurumena, kultura, hezkuntza, kirola, biztanleria, merkataritza, gazteria, hirugarren adina, generoa, irisgarritasuna, migrazioa eta gizarte-lana. Aurretik aipatutako irizpidean oinarrituta, Elkarteek proposatutako Lantaldeko kideak ezingo dira 42 baino gehiago izan.

Ondoren, herritarren eskaerak aztertuko dira, eta aukeraketa egiterakoan, arreta jarriko da azaldutako bizi-esperientzian eta/edo esperientzia profesionalean eta lantaldean sartzeko adierazitako arrazoietan.

Bi sexuen arteko eta adin-tarte desberdinetako ordezkariak orekatua lortzen saiatuko da.

Aurrez ezarritako irizpideen bitartez, udal teknikariek eta idazketa-taldeak behar bezala arrazoitutako hautaketarako proposamen bateratua aurkeztuko diete talde politikoei, azken hauek euren iritzia eman dezaten; alkateak ebatziko du gaia, dekretu bidez.

Parte hartuko duten erakundeak eta bizilagunak hautatu ondoren, Udala horiekin guztiekin harremanetan jarriko da.

Berrikuspenaren idazketa-taldeak funtzionamendurako eta lanerako araudi soil bat proposatuko du eta, Lantaldeko kideek egoki irizten dizkieten aldaketak egin ondoren, gehiago soilaren bitartez onartu beharko du Lantaldeak berak, funtzionamendurako mekanismo eraginkor bat izateko helburuarekin.

#### Lantaldeak egin beharreko zereginak.

Lantaldeak artatuko ditu idazketa-taldeak Aldez Aurreko Azterlanak, Aurrerakinaren Atariko eta Aurrerakineko fase estrategikoetan planteatutako proposamenak, aurrerago 5. puntuko kronograman adieraziko den bezala.

Lantaldearen parte-hartzea ahalbideratzeko, deialdia egin eta dagozkion lan-saioak gauzatuko dira. Saio horiek Getxoko Udalak helburu horrekin Lantaldearen esku jarritako lokaletan egingo dira.

Lan-saioak antolatu baino lehen, irekitako bi prestakuntza hitzaldi egingo dira. Hurrengo atalean (1.4) emango dira horiei buruzko azalpenak eta Lantaldeko kideek derrigor hartu beharko dute parte hitzaldi horietan. Ez badira aipatutako prestakuntza hitzaldietara joaten, ezingo dute lan-saioetan parte hartu; izan ere, gaia oso konplexua denez, beharrezkoa da araudia eta hainbat kontzeptu, gutxienez, azaletik ezagutzeko; ezagupen hori gabe, nabarmen mugatuko liriteke kolaboratzeko, interpretatzeko eta ulertzeko aukerak.

Fase eta saio bakoitzean aztertutako gaien buruzko informazioa eta aholkuak emateko egokienak diren idazketa-taldeko kideek jardungo dute lan-saioen gidari lanetan. Udal teknikoek lan-saioetan laguntzaile lanak egin ditzakete, behar izanez gero.

Lan-saio baten prozesu osoan zehar, idazketa-taldeko kideak eskuragarri izango dira lanekin lotutako edozein informazio, kontsulta edo eskaera gehigarri emateko.

Parte hartzen duten idazketa-taldeko kideak aurkeztuz hasiko da saio bakoitza eta, ondoren, idazketa-taldearen gomendioei jarraituz, Lantaldea egituratuko da, hala dagokionean, talde txikiak eta operatiboak osatuz. Talde horiek gaiak eztabaidatzeko eta aukerako eskemak eta proposamenak garatzeko dokumentazio egokia jasoko dute.

Talde bakoitzak bozeramaile edo bokal bat edukiko du eta beste bozeramaileei bere taldean eztabaidatutakoaren eta ateratako ondorioen berri emango die; horien guztien artean –bokal guztien artean– proposamenak adostu eta elkarrekin koordinatu beharko dituzte. Izandako eztabaida eta adostutako ondorioak adierazten dituen agirian ondorio komunei buruzko desadostasun zehatzak onartu ahal izango dira. Ados ez dagoenak edo ez daudenek euren desadostasuna behar bezala arrazoituko beharko du/dute.

Fase guztietarako oinarri gisa, "Aldez aurreko Azterlanak" fasearen kasuan izan ezik, gutxienez hiru saio egingo dira: hasierako saio bat (talde guztiak batera), idazketa-taldeak eztabaidatu beharreko edukia azalduko duelarik (ordubete inguruz), eta ondoren, galderen txanda izango da eta edukiari buruzko lehenengo eztabaida egingo da, taldeka; bigarren saioan, eztabaida garatuko da; eta amaierako saioan, eztabaida egin

eta baterako ondorioak aterako dira. Deialdi bakoitzaren amaierako saioetan, eztabaidari berriz heltzeaz gain, taldeen ondorioak koordinatzen saiatuko da, bokalen bitartez.

Saio bakoitza amaitu ondoren, parte-hartzaileek idazketa-taldeak emandako bi galdetegi beteko dituzte: galdetegi horiei esker, ebaluatu ahal izango dute, alde batetik, aztertutako gaien buruzko iritzia eta, bestalde, saio bakoitzaren antolaketa, informazioa eta aprobetxamendua. Idazketa-taldeak aipatutako informazioa bilduko du, ondoren aztertzeko eta kontuan hartzeko, lanekin jarraitzeko helburuarekin.

Lehenengo galdetegia azalpenaren edukiarekin lotutako galderez osatuko da eta/edo, hala dagokionean, dagokion saioaren helburu den antolamenduari buruzko galderez; eta erantzun positiboan edo negatiboan edo aukerakoen formatua ezarriko da. Hartara, erantzunen emaitza erraz asko ustiatu ahal izango da.

Bigarrena lan-saioaren martxarekiko asebetetze-mailari dagozkion aldeei buruzkoa izango da, aztertu eta eztabaidatu beharreko edukia argi azaltzeari, ekarritako materialari eta idazketa-taldearen saioan zeharreko antolaketa, jarraipen eta laguntzari dagokienez. Galdetegi hau antolaketa arazoak detektatzeko eta egindako akatsak zuzentzeko erabiliko da, hurrengo saioak hobeto bideratu ahal izateko.

Parte-hartzaileek galdetegiak bete beharko dituzte saio bakoitza amaitu ondoren.

#### Lantalde bakoitzari entregatu beharreko baliabide materialak eta informazioa aurkitzea eta antolatzea.

Saioak Getxoko Udalak erabilgarri jarritako eraikinetan egingo dira.

Fase bakoitzari dagokion azalpena Lantaldeko kide guztientzat batera egingo da, ondoren beharrezko informazioa gehituz eta azalpenak eta xehetasunak emanez, talde bakoitzeko berezko gai zehatzen arabera.

Lan-saio bakoitza 4 ordukoa izango da, tartean 15 minutuko atsedendaldi labur batekin. Ordutegia luzatu edo moztu ahal izango da lanen martxaren eta lokalen erabilgarritasunaren arabera.

Hasiera batean, saioak 17:00etatik 21:00etara izango dira, Udalak gutxienez deialdi bakoitzaren hasierako saiorako zehaztuko duen astegun batean.

#### **I.4- JENDE GUZTIARI IREKITAKO PRESTAKUNTZA HITZALDIAK.**

Lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren alorrean indarrean dagoen araudiaren eduki teknikoei eta juridikoei buruzko bi prestakuntza hitzaldi antolatuko dira, HAPOren berrikuspenaren idazketa esleitutako taldearen eskutik. Hitzaldiak osagarriak izango dira eta hitzaldi bakoitzak eduki desberdina izango du.

Aipatutako hitzaldiak, ahalik eta hizkuntza errazenaekin eta hurbilenarekin eskainiko dira eta lurralde-antolamenduko planen eta Hiri-antolamenduko Plan Orokorren edukia, adierazteko bitartekoak eta irismena azaltzeko balioko dute eta bertaratu eta ikasi nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute.

Hitzaldien helburua da bertaratutakoei Hiri-antolamenduko Plan Orokor baten onarpenak herritarrei dakartzkien ondorioen ikuspegiari eta ezagupen orokorrari buruzko prestakuntza eskaintzea.

Izaera generikoa eta teorikoa duten eta maila didaktiko eta kontzeptual ahalik eta zabalenaekin eta garatuenarekin adierazitako azalpenekin batera, adibide praktikoak irudikatu eta azalduko dira, gizakiaren jardueren natura-ingurunean eta hiri-ingurunean izango duten eraginaren etorkizuneko zehaztapenean lurralde-antolamenduko tresnek ezartzen dituzten zeregina eta baldintzatzaileak erabat ulertu ahal izateko, hirigintza-plangintzaren jarduketara gaitasunaren gaineko nagusitasun hierarkikoaren bitartez.

Lurralde-antolamenduko planen edukia eta zehaztapenak azalduko dira, Getxo udal mugarteko lurralde-plangintza partzialari eta sektorekako lurralde-plan operatiboari arreta berezia eskainiz.

“Lurzoruaren Sailkapena” modu errazean eta didaktikoan argitzea garrantzi berezia emango zaio, hiri-lurzorua, lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina kontzeptuak, alegia, hiri osatzeko eta natura-ingurunea babesteko helburuekin lotuz eta lurralde-antolamenduko tresnek ezarritakoari dagokionez horretarako errespetatu behar diren baldintzatzaileak gogoratuz.

“Lurzoruaren Sailkapena” eta “Lurzoruaren Erabilera” izenen edukien arazoak eta irismena zeintzuk diren azalduko da, baita antolamenduaren ikuspegiaren arabera eta lurzoruaren balioaren eta etxebizitza araubidearen ikuspegiaren arabera suposatzen duena ere.

Halaber, hainbat eraikuntza-dentsitate, eraikuntza-mota eta zuzkidura publikoetara bideratutako lurraldeen zenbaterako erabilera hiriko emaitza formalean suposatzen duenaren ikuspegi sinplifikatua eta ulergarria

eskainiko da; era horretan, hirigintza-antolamenduan erabiltzeko sinpleak baina, era berean, funtsezkoak diren termino eta kontzeptuak errazago erabili ahal izango dira.

Azkenik, lurzoruari buruzko araubide juridikoaren baldintzatzaile legalak zeintzuk diren, Administrazioak partikularrei nahi ez den kalte-ordainik eman behar ez izateko antolamendu berriak errespetatu beharreko baldintzatzaileak zeintzuk diren eta lurzorua jabeek eta/edo urbanizatzaileek egokitu dakizkien hirigintza-kargak euren gain hartzeko helburua duten obligazioak modu justu eta zuzenean bereganatzeko arauak zeintzuk diren azalduko dira.

Aurrekoarekin, zera lortu nahi da: prestakuntza hitzaldietara joan direnek (eta haren edukia modu sintetikoan azaldu da), lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza ulertzeko oinarrizko maila bereganatzea, HAPO berrikusteko prozesuan parte hartu ahal izateko, bai jendaurrean jartzeko fase desberdinetan, bai Lantaldearen bitartez.

Hitzaldiekin batera, teknika informatikoekin proiektatuko den materiala ere erabiliko da, idazketa-taldeak prestatutako eskema, grafiko, plano eta argazki osatuko delarik.

Sarbide bat sortuko da Udalaren Web-orrialdean, eta prestakuntza-hitzaldietan aurkeztutako dokumentazioa eskuragarri egongo da hantxe.

Hitzaldi bakoitzak 70 minutu iraungo du, 35 minutuko bi saiotan banatuta; hitzaldi bien artean, 15 minutuko atsedena bat egingo da eta, ondoren, bertaratutakoek azalduko edukiari buruzko egoki deritzen galderak eta proposamenak egiteko aukera izango dute.

Hitzaldiok Udalak aurretiazko deialdian adierazitako lokaletan egingo dira; deialdiari zabalkunde handia emango zaio.

#### **I.5- LANTALDEAREN LANERAKO 1. DEIALDIA.**

Lantaldea osatu ondoren, kideen lan-saioei ekingo zaie. Kideek, euren gain hartutako konpromisoa betetz, prestakuntza hitzaldietara joanak egongo dira eta hitzaldi horietan aktiboki parte hartuta eta, idatziz, egoki deritzen oharrik adierazi ahal izango dituzte, ondoren, idazketa-taldeari helarazteko.

Honekin zera lortu nahi da: hasiera-hasieratik, Lantaldeko kideek idazketa-taldeari egoki deritzen iradokizunak edo zalantzak jakinarazteko aukera izatea, ondoren formulatzen direnak alde batera utzi gabe.

Idazketa-taldearen eta Lantaldearen arteko informazioa eta iritziak banan-banan elkartrukatu beharko dira. Hala ere, lehenengo deialdiaren edukia, nagusiki, lantaldeko kideei udalerriko errealitate fisikoa eta soziala ahalik eta gehien ezagutzera bideratuta egongo da, plan orokorraren idazketa-taldeak horretarako prestatutako lanetan laburtuta.

#### **Aldez Aurreko Azterlanei buruzko lanerako 1. deialdia.**

Deialdia Aldez Aurreko Azterlanen dokumentuen edukia prest dagoenean egingo da.

Egindako analisiaren edukia buruzko informazioa emateko izango da: lurralde-antolamenduko planei eta etorkizuneko plan orokorrean eta ingurumenean sortuko duen eraginari buruzkoa eta indarreko HAPOn programatutako hiri-lurzoruetako egikaritzari eta etxebizitza-jarduketa isolatuei buruzkoa. Lanerako lehenengo deialdi honek, batez ere, informazioa eskaintzeko hasierako saio bat edukiko du, izan ere, lurralde-antolamenduko tresnak onartzetik eta indarreko lege sektorialetatik sortutako kontzeptuak azalduko dira, beraz, iritziek, hemen, ez dute kontraste handirik sortuko analisiaren emaitzekin.

Aurretik aipatutakoa alde batera utzi gabe, lan-saio honen denboraren erdia Lantaldeko kideek jasotako informazioa aztertzen emango dute eta edukia buruz eztabaidatzeko aukera emango du.

Idazketa-taldeak guztiei batera eskainiko dizkie azalpenak, etxebizitzari dagokion informazioa aurkezteko aukerarekin, batez ere, hiri-lurzorua eskaintzeko gaitasunarekin lotuta, arloen arabera banatuta.

Gehenez bi asteko epean, Lantaldeko kideek egoki deritzen iradokizunak proposatu ahal izango dituzte amaierako saioan, eskaintako eta aztertutako informazioa garatuz, auzoen arteko koordinazioa helburu duten eta Getxoko plan orokorraren berrikuspenaren idazketa-prozesurako interesgarritzat jotzen dituzten proposamenak aurkeztuz. Proposamen horiek baterako ondorioei buruzko agiri batean formalizatuko dira.



### I.6- AHOLKU-BATZORDEARI ALDEZ AURREKO AZTERLANEI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.

Lantaldeak Aldez Aurreko Azterlanei dagokien lana amaitu ondoren, Udalak Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari deialdia egingo dio aipatutako informazioa entregatzeko eta idazketa-taldeari eskatuko dio Batzordeari azal diezaiola Aurrerakinaren Atarikoa idazteko lagungarriak izango diren aldez aurreko azterlanei buruzko edukia, Lantaldearekin burututako bi lan-saioretatik eratorritako ondorioak barne.

Lanen azalpena egin ondoren, Aholku-batzordeari dagokion txostena egitea eskatuko zaio, lurralde-antolamenduko planen analisiaren edukiri, etorkizuneko plan orokorrean izango duen eraginari eta ingurumenean eta udal mugarteko etxebizitza erabileran izango dituen eraginei dagokienez; txosten hori, hamabost eguneko epearen barruan entregatu beharko da.

### I.7- ALDEZ AURREKO AZTERLANEI ETA EUSKO JAURLARITZAREN ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN TXOSTENEI BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK IDAZTEA.

Udal teknikariek Aldez Aurreko Azterlanen edukiri eta Lantaldeak eta Udal-plangintzako Aholku-batzordeak egindako baterako ekarpenei buruzko txostena egingo dute.

## II.- AURRERAKINAREN ATARIKOA.

Fase hau Aurrerakinaren Atarikoa idaztean datza, eta bere helburu nagusia da HAPOren berrikuspenaren lehenengo oinarrien definizioa ezartzea eta berrikuspen-lanekin hasteko beharrezko informazioa lortzea eta laburtzea.

Ondoren zehazten da lanen eta jardueren proposatutako kronograma:

II.1	<b>a. Idazketa-taldeak Aurrerakinaren Atarikoa idaztea.</b> Ebaluazio agiria, honakoekin: plangintzaren, proposamenen eta alternatiben helburuak, irismena eta edukia; HAPOren aurrekusi daitekeen garapena; aurrekusi daitezkeen ingurumen-efektuak; lurraldeko elementu estrategikoetan eragindako efektuak, inplikaturako plangintza sektorialean eragindakoak.	<b>b. Lantaldearen lanerako 2. deialdia.</b> Hiru saio idazketa-taldearen lana azaltzeko eta Lantaldeak Aurrerakinaren Atarikoaren fasean proposamenak aurkezteko.
II.2	<b>Aholku-batzordeari Aurrerakinaren Atarikoari buruzko kontsulta egitea.</b> Lantaldearen ekarpenen bitartez Aurrerakinaren Aurrekoa moldatu ondoren, Aholku-batzordeari haren edukiri buruzko txostena eskatuko zaio.	
II.3	<b>Aurrerakinaren Atarikoari buruzko udal txosten teknikoak.</b>	
II.4	<b>Aurrerakinaren Atarikoa jendaurrean jartzeko eta bidaltzeko erabakia.</b>	
II.5	<b>a. Ingurumen Sailburuordetzari Kontsulta egitea, Erreferentziak Agiria lortzeko.</b>	<b>b. Aurrerakinaren Atarikoa jendaurrean jartzea. (Hilabete bat)</b>
	<b>c. Aholku-batzordeari jendaurrean jarritako Aurrerakinaren Atarikoari buruzko informazioa ematea.</b>	
II.6	<b>a. Herritarrek parte hartzeko lehenengo prozesuari buruzko idazketa-taldearen txostena.</b>	<b>b. Herritarrek parte hartzeko lehenengo prozesuari buruzko Udal Zerbitzu Teknikoen txostena.</b>

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta kolore horiz azpimarratuko dira Udalerako eta kolore urdinez, berriz, idazketa-talderako.

Herritarren eta erakundeen parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharrezko jarduerak ezartzeko; eta kolore berdez adieraziko dira.

Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

### II.1- HAINBAT JARDUERA.

#### II.1.a.- AURRERAKINAREN ATARIKOA IDAZTEA.

LHLk, 9/2006 Legeak eta 183/2003 Dekretuak Ingurumen-eraginaren baterako Ebaluazioa egitera behartzen dute hiri-antolamenduko plan orokorra Berrikusteko prozedura.

Aurrerakinaren aurretiazko fasetik behin betiko onarpenaren fasera arte HAPOren ingurumenari dagokion ebaluazioa egin ahal izateko, Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlana (IIBEA) idatzi behar da, HAPO osatzen duen atal gisa. IIBEA idazteko gida ingurumeneko organo eskudunak egiten duen Erreferentziak Agiria da –aztergai dugun kasuan, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen Sailburuordetza da organo eskuduna–.

Aurrerakinaren Atarikoaren osatzeari esker, Udalak aipatutako Erreferentziazko Agiria eskatu dezake. Idazketa-taldeak Aurrerakinaren Atarikoaren lehenengo dokumentazioa edo "Erreferentziazko Agiria eskatzeko agiria" egingo du eta fase honetarako Lantaldearen lanerako material egokia sortuko du.

### II.1.b.- LANTALDEAREN LANERAKO 2. DEIALDIA.

Deialdi hau egingo da Aurrerakinaren Atarikoaren faseko hasierako edukia osatuta dagoenean. Ondorioak aztertu eta osatuko dira, ingurumen-eraginaren azterketaren (Ingurumen Sailburuordetzaren Erreferentziazko Agiria) hedaturari eta zehazpen-mailari buruzko kontsulta egiteko aurretiazko dokumentazioari dagokionez eta egungo HAPOn indarraldian biztanleriak izan duen eboluzioaren analisia egingo da. Analisi horrek, kalifikazio globalaren mailan, udalerriko hirigintza-garapenerako edo, hala badagokio, erreforma eta berrikuntzarako lehenengo proposamen eskematikoak jasoko ditu. Entregatutako dokumentazioak ordura arte burututako lanak jasoko ditu, entregatuko den Aurrerakinaren Atarikoaren behin betiko erabakia izango ez den arren.

Lehenengo lan-saioa izango da, jarduteko proposamenak aztertzea eta osatzea helburu nagusia izanik, lanen 2. fasearen edukia etorkizuneko plan orokorraren proposamenen eduki estrategikorako lehenengo hurbilpena izango baita; honetarako Lantaldea talde txikiagoetan zatituko da.

Bigarren saio bat ezarriko da, eztabaidarekin jarraitzeko eta amaierako saio bat, proposamenak edo alternatibak zehazteko, eta ondoren talde bakoitzeko bokalek erabakitako lantalde batean bateratuko dira proposamen eta alternatiba horiek. Azken saio honen helburua izango da Aurrerakinaren Atarikoaren inguruan talde bakoitzak landutako ondorioak eta gomendioak batzen eta adosten saiatzea, talde guztiek udal mugarte osorako aurkeztutako Aurrerakinaren Atarikoaren proposamen guztien ikuspegi orokorra emanez.

### II.2- AHOLKU-BATZORDEARI AURRERAKINAREN ATARIKOARI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.

Lantaldearekin burutu beharreko herritarren parte-hartzeari buruzko lanen eta Aurrerakinaren Aurrekoari buruzko edukiarri egindako ekarpenen ondoren, eta aipatutako faseko lanak Udaltzari entregatu zaizkionetik 15 eguneko gehienezko epean, Udaltzak Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari deialdia egingo dio, aipatutako informazioa entregatuz eta idazketa-taldeari eskatuz Batzordeari edukia azal diezaiola, Lantaldearekin burututako hiru lan-saioetatik eratorritako ondorioak barne.

Udal-plangintzako Aholku-batzordeari Aurrerakinaren Atarikoaren edukiarri buruzko txostena egitea eskatuko zaio; hilabeteko gehienezko epean entregatu beharko dio txosten hori Udaltzari, jasota gera dadin eta Udaltzak ezagut dezan.

Jasotako agiriaren gainean Batzordeak egindako oharra eta iradokizunak agiri berri batean sartuko ditu idazketa-taldeak, Batzordeak eta Lantaldeak dagoeneko entregatutakoarekin bateratu ahal izateko.

### II.3- AURRERAKINAREN ATARIKOARI BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK.

Udal teknikoek Aurrerakinaren Atarikoari buruzko txostenak egingo dituzte, Lantaldearen eta Aholku-batzordearen ekarpenekin.

### II.4- AURRERAKINAREN ATARIKOA JENDAURREAN JARTZEKO ETA BIDALTZEKO ERABAKIA.

Udal Organo eskudunak, Aurrerakinaren Atarikoari buruz entregatutako dokumentazio guztia eta 2. fasea arte sortutako oinarriko eta erakundeetako parte-hartzeari buruzko gainerako ondorio eta txosten guztiak aztertuta, Aurrerakinaren Atarikoaren jendaurrean jartzea eta Ingurumen Sailburuordetzari bidaltzea erabakiko du.

### II.5- HAINBAT JARDUERA

#### II.5.a.- INGURUMEN SAILBURUORDEZARI KONTSULTA EGITEA.

Aurrerakinaren Atarikoari buruzko agiria bidaltzea eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari Erreferentziazko Agiria bidaltzeko eskatzea.

#### II.5.b.- AURRERAKINAREN ATARIKOA JENDAURREAN JARTZEA.

Aurrerakinaren Atarikoaren jendaurrean jarriko da, hilabeteko epez.

Aipatutako agiriarekin, Udalak azalpen hitzaldi bat antolatuko du; hitzaldi horretan, dokumentazio grafiko eta idatzizko dokumentazio egokia proiektatuz, aurretik egindako lanen eduki eta erabaki garrantzitsuenen berri emango du.

Hitzaldian, modu bateratuan eta orokorrean azalduko dira lurralde-antolamenduko tresnek Udalaren hirigintza-plangintzan sortutako eraginak eta biztanleria, etxebizitza, errenta eta enpleguari buruzko azterlanaren deskribapen laburra egingo da, hiri-lurzoruak eskainitako aukerei eta Lurralde Plan Partzialak ezarritako etxebizitza eskaintzaren kuantifikazioari dagokienez. Amaitzeko, lurzoru urbanizagarrian garapenerako dauden alternatibak deskribatuko dira, emaitzaren eta aurretik landutako datuen arabera.

Era berean, hilabeteko epean, ordura arte egindako lana deskribatzen eta laburtzen duten materialak jendaurrean jarriko dira, bai Aldez Aurreko Azterlanen fasekoak, bai Aurrerakinaren Atarikoaren fasekoak. Materialak horretarako egokitutako lokaletan jarriko dira ikusgai.

Idazketa-taldea arduratuko da aipatutako erakusketaren informazio-paneletako dokumentazioa prestatzeaz. Idazketa-taldeko bi kidek hiru ordu emango dituzte bi lan jardunalditan, erakusketa antolatuko den lekuan bertan, erakusketaren bisitariek argitu nahi dituzten zalantza guztiei erantzuteko.

Aurrerakinaren Atarikoaren edukia euskarri informatikoan jasoko da, jendearen artean, oro har, gehien zabalduko eta gehien erabilitako programekin; aipatutako informazioa Udalaren Web-orrialdean zintzilikatuko da eta adierazten diren agiriak erreproduzitzeko bulegoetan utziko da.

Jendaurrean jarritako dokumentazioa, hitzaldia eta Udalaren Web-orrialdean, kontsultatu eta erreproduzitzeko, zintzilikatutako informazioaren zabalkunderako kanpaina antolatuko du Udalak.

Parte hartzeko denbora honetan, herritarrek, ikusgai jarritako agiriei buruz egin nahi ditzaketen iradokizun edo aukera guztiak erregistratuko dira. Aipatutako ekarpenak Aurrerakinaren hurrengo faserako hartuko dira kontuan eta, nolana ere, modu generikoan erantzungo dira, Aurrerakina jendaurrean jartzean formulatzen diren gainerako iradokizunekin eta alternatibekin batera (ikus kronogramaren **IV.3.a** puntua).

### **II.5.c.- AHOLKU-BATZORDEARI JENDAURREAN JARRITAKO AURRERAKINAREN ATARIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.**

Aurrerakinaren Atarikoaren Ingurumen Sailburuordetzari bidaltzearekin eta jendaurrean jartzearekin batera, Udaltzako jendaurrean jarritako agiriari buruzko informazioa bidaliko dio Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari, ezagut dezan. Aholku-batzordeak hala eskatuz gero, idazketa-taldeari eta/edo udal teknikariei bilera baterako deialdia egingo zaie, Batzordeari behar dituen azalpenak emateko.

## **II.6- HAINBAT JARDUERA.**

### **II.6.a.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO LEHENENGO PROZESUARI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN TXOSTENA.**

Idazketa-taldeak, lanak erakusgai egon diren bitartean herritarrek erregistratutako ekarpenei buruzko informazioa emango du.

Idazketa-taldeak, lanak erakusgai egon diren bitartean, egindako edo erregistratutako iradokizunak, aukerak eta iritzia laburtuko ditu; Aurrerakina idazteko etaparen barne nola sartu baloratuko du eta erantzun generikoen eskema batzuk proposatuko ditu. Horrez gain, herritarrek prozesuari buruz egindako balorazioa eta euren ekarpenak ordura arte idatzitako agirietan sartzearekiko asebetetze-maila aztertuko da.

### **II.6.b.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO LEHENENGO PROZESUARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.**

Udal teknikariek Aurrerakinaren Atarikoaren jendaurrean jartzeko prozesuari buruzko txosten bat egingo dute, baita herritarrek aurkeztutako iritziei, iradokizunei eta alternatibei buruzkoa ere.

### III.- AURRERAKINA.

Fase honen helburu nagusia da Herritarren Parte-hartzeak Aurrerakinaren barruan oinarri hartuko dituen funtsak ezartzea.

Ondoren zehazten da lanen eta jardueren proposatutako kronograma:

III.1	<b>Udal oinarri kartografikoa idazketa-taldeari entregatzea.</b>		
III.2	<b>HAPO 2001 dokumentuaren Testu bategina idazketa-taldeari entregatzea.</b>		
III.3	<b>Ingurumen Sailburuordetzatik ERREFERENTZIAZKO AGIRIA jasotzea.</b>		
III.4	<b>a. Idazketa-taldeak Aurrerakina idaztea.</b>	<b>b. Idazketa-taldeak Ingurumen-eraginaren baterako Ebaluazioaren Azterlana (IIBEA) idaztea.</b>	<b>c. Lantaldearen Lanerako 3. deialdia.</b> Hiru saio idazketa-taldearen lana azaltzeko eta Lantaldeak Aurrerakin fasean proposamenak aurkezteko.
III.5	<b>Aholku-batzordeari Aurrerakinari buruzko kontsulta egitea.</b> Aurrerakinaren Testua bategin ondoren, Lantaldearen ekarpenekin, Aholku-batzordeari haren edukari buruzko txostena eskatuko zaio.		
III.6	<b>Aurrerakinari eta IIBEAri buruzko udal txosten teknikoak.</b>		
III.7	<b>Aurrerakina eta IIBEA jendaurrean jartzeko eta Sailburuordetzari bidaltzeko erabakia.</b>		
III.8	<b>a. Ingurumen Sailburuordetzari Aurrerakinari eta IIBEAri buruzko kontsulta egitea.</b>	<b>b. Udalerri mugakideei Aurrerakina bidaltzea.</b>	<b>c. Aurrerakina jendaurrean jartzea. (2 hilabete)</b>
III.9	<b>Aholku-batzordeari jendaurrean jarritako Aurrerakinari buruzko informazioa eskatzea.</b>		
III.10	<b>Ingurumen Sailburuordetzatik Aurretiazko Txostena jasotzea.</b>		
III.11	<b>a. Jendaurrean egon den bitartean herritarrek aurkeztutako iradokizun, alternatiba eta iritziei eta Aurretiazko Txostenari buruzko idazketa-taldearen laburpen txostena.</b>	<b>b. Erakusgai jartzeari, herritarren iradokizunei eta Aurretiazko Txostenari buruzko Udal Zerbitzu teknikoaren txostena.</b>	

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta **kolore horiz** azpimarratuko dira Udalerako eta kolore urdinez, berriz, idazketa-talderako.

Herritarren eta erakundeen parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharreko jarduerak ezartzeko; eta **kolore berdez** adieraziko dira.

Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

#### III.1- UDAL OINARRI KARTOGRAFIKOA IDAZKETA-TALDEARI EMATEA.

HAPOren Berrikuspen Bulegoak idazketa-taldeari udal kartografia entregatuko dio 1/500 eskalan.

#### III.2- INDARREKO HAPO-REN TESTU BATEGINA IDAZKETA-TALDEARI EMATEA.

Plan Orokorraren Berrikuspen Bulegoak idazketa-taldeari 2001eko HAPOren bertsio osoa eta eguneratua entregatuko dio.

#### III.3- INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN ERREFERENTZIAZKO AGIRIA HARTZEA.

Udalak Ingurumen Sailburuordetzaren Erreferentziazko Agiria jasoko du, idazketa-taldeari banatzeko.

#### III.4- HAINBAT JARDUERA.

##### III.4.a.- AURRERAKINA IDAZTEA.

Talde teknikoak Aurrerakinaren hasierako dokumentazioa eta Lantaldeak, fase honetan, lanerako behar duen materiala prestatuko du.

##### III.4.b.- IIBEA IDAZTEA.

Talde teknikoak Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazio Azterlanaren (IIBEA) lehenengo bertsioa idatziko du, Aurrerakin fasera behar bezala egokituta.

#### **III.4.c.- LANTALDEAREN LANERAKO 3. DEIALDIA.**

Deialdia egingo da Aurrerakinaren faseko eta IIBEAren aurretiazko edukia prest dagoenean. Lantaldeak 3. faseko edukiari dagozkion ondorioak aztertu eta osatuko ditu.

Entregatutako dokumentazioak idazketa-taldeak ordura arte egindako lanak jasoko ditu, entregatuko den Aurrerakinaren Aurrekoaren behin betiko erabakia izango ez den arren, izan ere, lan deialdi honen emaitza operatiboaren arabera, sinplifikatu edo aldatu egin ahal izango da.

Lehenengo lan-saioa izango da, jarduteko proposamenak aztertzea eta osatzea helburu nagusia izanik, lanen 3. fasearen edukia etorkizuneko plan orokorraren proposamenen eduki estrategikoa izango baita. Lantaldea talde txikietan banatuko da, azterketa eta eztabaida errazteko.

Bigarren eztabaida saio bat egingo da, idazketa-taldeak ekarritakoaren berrikuspen osoa egiteko eta Lantaldearen proposamenak ahalik eta modu aberatsenean definitu ahal izateko.

Eta azkenik, Lantaldeari azken saio baterako deialdia egingo zaio, Aurrerakinaren inguruan talde bakoitzak Lantaldearen barruan landutako ondorioak eta gomendioak batzen eta adosten saiatzeko, talde guztiek udal mugarte osorako aurkeztutako Aurrerakinaren proposamen guztien ikuspegi orokorra emanez.

Lantaldeetako bokalek adierazitako ondorioak eta gomendioak landuta eta, fase honen ebaluaziorako inkestekin batera, Getxoko HAPO berrikusteko prozesuan herritarrek garatutako oinarritzko parte-hartze mota hau amaituko da; Lantaldeko kideek, beste edozein herritar edo erakunde publiko zein pribatuk bezalaxe eta indarreko legeek ezarritakoaren arabera, lanak jendaurrean jarri diren bitartean pertsonatzeko aukera dutela kontuan hartuta (hau da, programa honen kronogramaren III.8.c, III.8.d eta V.6.C jardueretan).

#### **III.5- Aholku-batzordeari Aurrerakinari buruzko kontsulta egitea.**

Lantaldeak Aurrerakinari buruz egindako ekarpenekin aberastutako lanekin, laneko 3. deialdia amaitu ondoren, eta aipatutako faseko lanak Udaltzari entregatu zaizkionetik kontaktzen hasi eta 15 eguneko gehienezko epean, Udaltzak Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari deialdia egingo dio, lana entregatzeko eta idazketa-taldeari eskatzeko Batzordeari Aurrerakinaren edukia azal diezaiola, Lantaldearekin burututako hiru lan-saioetatik eratorritako ondorioak barne.

Udal-plangintzako Aholku-batzordeari Aurrerakinaren edukiari buruzko txostena egiteko eskatuko zaio; hilabeteko gehienezko epean entregatu beharko dio txosten hori Udaltzari, jasota gera dadin eta Udaltzak ezagut dezan.

#### **III.6- Aurrerakinari eta IBEAri buruzko udal txosten teknikoak.**

Udal zerbitzu teknikoek Aurrerakinaren agiriari eta IIBEAren lehenengo bertsioari buruzko txostena egingo dute, baita Lantaldearen eta Aholku-batzordearen ekarpenei eta ekarpenok dokumentuan sartzeari buruzkoa ere, jendaurrean jartzea erabaki dadin.

#### **III.7- Aurrerakina eta IBEA jendaurrean jartzeko eta sailburuordetzari bidaltzeko erabakia.**

Udal Organo eskudunak, Aurrerakinari buruz entregatutako dokumentazio osoa eta 3.fase honetara arte sortutako herritarren eta erakundeen parte-hartzeari buruzko gainerako ondorio eta txosten guztiak aztertuta (Lantaldea eta Aholku-batzordea), Aurrerakina jendaurrean jartzeko erabakia hartuko du eta Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko dio.

#### **III.8- HAINBAT JARDUERA.**

##### **III.8.a.- Ingurumen sailburuordetzari Aurrerakinari eta IBEAri buruzko kontsulta egitea.**

Aurretiazko Txostena Ingurumen Sailburuordetzari kontsultatzea eta bidaltzeko eskatzea; horretarako, jendaurrean jarritako Aurrerakina eta IBEA erantsiko ditu.

##### **III.8.b.- Aurrerakina udalerrri mugakideei bidaltzea.**

Udalak Aurrerakinari buruzko dokumentua Getxoko udalerrri mugakide guztiei bidaliko die, ezagut eta prozesuan parte har dezaten, LHLren 90.3. artikulua ezartzen duen obligazioari jarraiki.

### III.8.c.- AURRERAKINA JENDAURREAN JARTZEA.

Aurrerakina jendaurrean jartzeko erabakia hartu ondoren, erakusgai jartzeko aldi legala zabalduko da eta Udalak Aurrerakinari buruzko edukia azaltzeko hitzaldi publiko orokorra antolatuko du, eta beste hiru hitzaldi osagarri, Udalerriko Arlo bakoitzeko bana.

Aurrerakina jendaurrean jartzeko izapide honek bi hilabeteko iraupena izan behar du eta Getxoko herritarrei edo interesa duen edozeini ekarpenak, iradokizunak eta/edo Aurrerakinean dagoeneko ezarri ez diren beste aukera desberdinak proposatzeko aukera eman beharko zaie, Irizpide eta Helburuen Erabakia osatu baino lehen baloratu ahal izateko.

Hitzaldietako bakoitzean, dagokion dokumentazio grafikoa eta idatzizkoa proiektatuta, HAPOn Berrikuspena egin aurreko lanen edukirik eta erabakirik garrantzitsuenak azalduko dira. Informazioa Aurrerakinaren oinarriko helburuen azalpen bateratu eta global batekin batera antolatuko da eta, ondoren, balizko hiri-erreforma eta berrikuntzako jardueri, proposatutako hirigintza-garapenari eta etxebizitza kopuruaren kuantifikazioari eta, hala badagokio, industria eta zerbitzuen sektoreetan sortutako lanpostuen kuantifikazioari dagozkien aldeak landuko dira. Horrez gain, lurzorua okupatzeko proposamenek eragindako garraioaren egiturari eta bidaiei buruzko azalpena emango da.

Hirigintzako aldeei dagokien hitzaldia amaitzeko, zuzkidura publikoetan dauden estandarrei eta plangintzako Aurrerakinak proposatutako estandarrei buruzko azalpena eskainiko da, horietarako indarrean dauden lege-xedapenak eta erregelamenduko xedapenak nola betetzen diren aztertuz.

Arlo bakoitzari buruzko berariazko hitzaldietan bereziki azpimarratuko dira Arlo horri dagozkien aldeak.

Era berean, bi hilabeteko epean zehar, ordura arte burututako lana deskribatzen eta laburtzen duten materialak jendaurrean jarriko dira, horretarako egokitzen diren lokaletan.

Idazketa-taldea arduratuko da aipatutako informazio-panelen dokumentazioaz.

Idazketa-taldeko bi kide sei orduz izango dira (3 goizez eta 3 arratsaldez), sei lanalditan, erakusketan, bisitariak kontsultatu nahi dituzten zalantza guztiak argitzeko. Sei lanaldiak elkarren ondoko bi egunetako hiru multzotan antolatuko dira.

Aurrerakinaren edukia euskarri informatikoan jasoko da, jendearen artean, oro har, gehien zabalduko eta gehien erabiliko programekin; aipatutako informazioa Udalaren Web-orrialdean zintzilikatuko da, kontsultatu eta erreproduzitu ahal izateko.

Halaber, galdetegi bat osatuko da, herritarrei Aurrerakinaren edukiaren alde garrantzitsuenei buruzko iritzia eskatzeko.

Udalak jendaurrean jarritako lanak eta hitzaldiak zabaltzeko kanpaina antolatuko du, baita Udalaren Web-orrialdean ipinitako informazioaren eta aurretik aipatutako galdetegia entregatzeko epearen eta tokiaren zabalkundea egiteko ere. Zabalkunde publikoa egiteko, besteak beste, Aurrerakina deskribatzen eta laburtzen duten materialen jendaurreko erakusketari buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta gehien hedatutako egunkarrietan argitaratuko da.

Halaber, berrikuspenaren idazketa-taldeko hiri-soziologiako taldeak, gutxienez bederatzi elkarrizketa egingo dizkie, hiru elkarrizketa udalerriko arlo bakoitzeko, udalerriko pertsona eta/edo erakunde garrantzitsuenei, Getxo udalerriko etorkizuneko hirigintzari buruz duten ikuspegi partikularra baloratu eta Aurrerakinean proposatutako edukiarekin kontrastatu ahal izateko. Bederatzi elkarrizketa horien edukiarekin, idazketa-taldeak ondorioen txostena egingo du.

Irakokizun eta alternatiba gisa egindako ekarpen guztiak modu generikoan ebaluatu eta erantzungo dira, Irizpideak eta Helburuak onartzeko erabakia hartzeko.

### III.8.d.- IIBEA JENDAURREAN JARTZEA.

Aurrerakin Agiria eta Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazio Azterlanaren (IIBEA) agiria egin ondoren, IIBEA jendaurrean jartzeko legezko epealdia irekiko da (ingurumen-legediak 45 egunetan ezartzen du), eta azterlan horren edukia jendeari azaltzeko hitzaldia antolatuko du Udalak.

Hitzaldi horretan, dokumentazio grafikoaren eta idatzizko dokumentazioaren proiektioarekin, Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazio Azterlanaren erabaki garrantzitsuenak azalduko dira.

Era berean, bi hilabeteko epean zehar, ordura arte burututako lana deskribatzen eta laburtzen duten materialak jendaurrean jarriko dira, horretarako egokitzen diren lokaletan.

Idazketa-taldea arduratuko da aipatutako informazio-panelen dokumentazioaz.

Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlanaren edukia euskarri informatikoan jasoko da, jendearen artean, oro har, gehien zabaldutako eta gehien erabilitako programekin; aipatutako informazioa Udalaren Web-orrialdean zintzilikatuko da, kontsultatu eta erreproduzitu ahal izateko.

Jendaurrean jarritako lanak, hitzaldia eta Udalaren Web-orrialdean zintzilikatutako informazioaren zabalkunderako kanpaina antolatuko du Udalak.

### III.9- AHOLKU-BATZORDEARI JENDAURREAN JARRITAKO AURRERAKINARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.

Aurrerakina eta IBEA onartu ondoren, eta horiek jendaurrean jartzeko aldiarekin batera, Getxoko Udalplangintzako Aholku-batzordeari aipatutako dokumentazioa bidaliko dio Udalak.

Aholku-batzordeak dokumentazioari buruzko azalpenik behar izanez gero, idazketa-taldeari eta/edo Udaleko teknikariei bilera baterako deialdia egingo zaie.

### III.10- INGURUMEN SAILBURUORDEZAREN AURRETIAZKO TXOSTENA JASOTZEA.

Kronogramaren ekintza hau udalerririk Sailburuordetzaren Aurretiazko Txostena jasotzean datza, ondoren idazketa-taldeari helarazteko.

### III.11- HAINBAT JARDUERA.

#### III.11.a.- JENDEAREN AURREAN ERAKUSGAI JARTZEKO PROZESUARI ETA AURRETIAZKO TXOSTENARI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN LABURPEN TXOSTENA.

Idazketa-taldeak Aurrerakina eta IBEA jendaurrean jarri diren aldietan aurkeztutako iradokizun, alegazio eta iritziei buruzko laburpen txostena egingo du, baita Ingurumen Sailburuordetzak bidalitako Aurretiazko Txostenari buruzkoa ere; txosten horrek aipatutako agiriak aztertuko ditu eta Udalbatzari informazioa eskainiko dio, berrikuspina idazteko irizpideak, helburuak eta konponbideak ezartzeko.

#### III.11.b.- JENDAURREKO ERAKUSKETA PROZESUARI ETA AURRETIAZKO TXOSTENARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.

Jendaurreko erakusketa prozesuari, egindako jardueretan herritarren parte-hartzeari eta ekarpenen edukiei buruzko txostena egingo dute Udaleko zerbitzu teknikoek, irizpideak eta helburuak onartzen dituen erabakia hartu aurretik baloratua izan dadin. Era berean, Ingurumen Sailburuordetzako Aurretiazko Txostenaren berri emango da, HAPOren Berrikuspenaren Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioa burutzeko.

## IV.- HAPO BERRIKUSTEKO OINARRIZKO IRIZPIDEEN ETA HELBURUEN ERABAKIA.

Honako hau da lanen eta jardueren proposatutako kronograma:

IV.1	HAPOren Berrikuspenaren Oinarrizko Irizpideak eta Helburuak onartzeko erabakia.	
IV.2	Eskumenak urtebetez etetea.	
IV.3	a. Erantzun generikoak bidaltzea, lanak jendaurrean jartzeko aldietan erregistratutakoari dagokionez.	b. Irizpideen eta Helburuen Erabakia hedatzea eta hari buruzko informazioa ematea.

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta kolore horiz azpimarratuko dira Udalerako eta kolore urdinez, berriz, idazketa-talderako.

Herritarren eta erakundeen parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharreko jarduerak ezartzeko; eta kolore berdez adieraziko dira.

Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

### IV.1- HAPO BERRIKUSTEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK EZARTZEKO ERABAKIA.

Jendaurrean jarritako lanak eta herritarren eta erakundeen parte-hartzea aztertuta, Udalak erabakiko ditu plan orokorra idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak.

### IV.2- ESKUMENA URTEBETEZ ETETEA.

Idazketa-taldeak eta Udaleko zerbitzu teknikoek egindako proposamenak aztertu ondoren, Udalak, esparru edo erabilera zehatzetarako mota guztietako onespren, baimen eta hirigintza-lizentzien ematea etetea erabaki

ahal izango du, urtebeteko gehienezko eperako. Erabaki hori eraginkorra izan dadin, eteteko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta zabalkunde handiena daukan egunkarian argitaratu beharko da.

#### IV.3- HAINBAT JARDUERA.

##### IV.3.a.- ERANTZUN GENERIKOAK BIDALTZEA.

Jendaurreko erakusketaren ondorioz (III.8.c III.8.d jarduketak) sortutako iradokizun eta alternatibei modu generikoan erantzungo zaie, adostutakoaren arabera, eta banaka jakinaraziko dira. Herritarrek Aurrerakinaren Atarikoak jendaurrean jarri zen aldian erregistratutako iradokizunei edo alternatibei ere aldi honetan erantzungo zaie, modu generikoan (ikusi II.5.b puntua).

##### IV.3.b.- OINARRIZKO IRIZPIDEEI ETA HELBURUEI BURUZKO ERABAKIA JENDEARI ZABALTZEA ETA HARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA.

HAPO berrikusteko Oinarrizko Irizpideei eta Helburuei buruzko Erabakia hartu ondoren, Udalak haren berri emango du Udalaren Web-orrialdean iragarkia argitaratuz, eta udal teknikoek, HAPOren Berrikuspen Bulegoarekin, adostutako edukiari buruzko azalpenak emango dizkiete interesa azaltzen duten guztiei.

#### V.- HAPO-REN BERRIKUSPENAREN HASIERAKO IDAZKETA ETA ONESPENA.

Fase honen helburu nagusia da Getxoko HAPOren berrikuspenaren Hasierako Idazketaren aldian herritarren parte-hartzearen oinarri izango diren definizioa ezartzea. Honakoa da lanen eta jardueren proposatutako kronograma:

V.1	<b>HAPOren Berrikuspenaren Hasierako Idazketa.</b> Udalaren baldintza pleguan eta idazketa-taldearen eskaintzan adierazitako gutxienekoekin idatziko da HAPO.		
V.2	<b>Hasierako Onespeneren aurreko Txostenetarako kontsulta,</b> sektoreko arautegiaren arabera.		
V.3	<b>Biztanleria Zenbatzeko Ziurtagiria eskatzea.</b>		
V.4	<b>Hasierako Idazketaren agiriari buruzko udal zerbitzu teknikoaren txostena.</b>		
V.5	<b>HAPOren Berrikuspena Hasiera Batean Onartzeko osoko bilkuraren erabakia,</b> Onespen, Baimen eta Lizentzien ematea eteteak eragindako esparruak adieraziz.		
V.6	<b>a. Eskudun Herri-administrazioei kontsulta:</b> LHLren eta sektoreko arautegiaren arabera.	<b>b. Herri-administrazioei (HH AA) jakinarazpena. Herri-administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legea.</b>	<b>c. Hasierako Agiria jendaurrean jartzea.</b> Lau hitzaldi publiko, agiriari buruzko azalpenak emateko idazketa-taldearen bertan-bertako saioekin; alegazioak erregistratuko dira.
V.7	<b>Aholku-batzordeari kontsulta.</b> HAPOren Hasierako Idazketari buruzko txostena eskatuko zaio Aholku-batzordeari.		
V.8	<b>Alegazioak idazketa-taldeari bidaltzea.</b>		
V.9	<b>Alegazioei buruzko idazketa-taldearen banakako txostenak.</b>		
V.10	<b>a. Herritarrek parte hartzeko prozesuari buruzko idazketa-taldearen laburpen txostena.</b>	<b>b. Herritarrek parte hartzeko prozesuari buruzko Udaleko zerbitzu teknikoaren txostena.</b>	
V.11	<b>Aholku-batzordeari informazioa bidaltzea,</b> lanak jendaurrean jartzeari, herritarren parte-hartzeari eta hori Behin-behineko Onespenerako agirian sartzeari buruz.		
V.x	<b>Herritarrek parte hartzeko prozesua errepikatze aukera,</b> egiturazko antolamendu-mailako behin-behinean onesteko aldaketa garrantzitsuak egin behar izanez gero. <b>V.5, V.6, V.7, V.8, V.9, V.10 eta V.11</b> puntuak errepikatuz.		

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta kolore horiz azpimarratuko dira Udalerako eta kolore urdinez, berriz, idazketa-talderako.

Herritarren eta erakundearen parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharreko jarduerak ezartzeko; eta kolore berdez adieraziko dira.

Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

#### V.1- HAPO-REN BERRIKUSPENAREN HASIERAKO IDAZKETA.

Idazketa-taldek HAPO berrikusteko agiria egingo du, hasiera batean onesteko, irizpideei eta helburuei buruz adostutakoari jarraiki.



## V.2-HASIERAKO ONESPENAREN AURRETIAZKO TXOSTENETARAKO KONTSULTA.

Hasierako onespena baino lehen, txostenak eskatuko dira, kasuan kasuko sektoreko legeen arabera, ondoren adierazitakoari jarraiki:

- “22/1988 Legea, *Kostaldee buruzkoa*”; horren arabera, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsabazter Mugaketaren bitartez.
- “2591/1998 Errege Dekretua, *Interes Orokorreko Aireportuak eta dagozkien zerbitzuguneak antolatzekoa*”; horren arabera, Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendari Nagusiari.
- “Legegintzako 2/2011 Errege Dekretua, *Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Testu bategina onartzen duena*”; horren arabera, Bilboko Portuko Agintaritzari.
- “1367/2007 Errege Dekretua, *Zaratari buruzko 37/2003 Legea garatzen duena*”; horren arabera, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta soinu-igorpenei dagokienez, eragindako azpiegitura baten organo eskudunei –Abiazio Zibileko Zuzendari Nagusiari, Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraioetarako Departamentuari, Eusko Trenbide Sareari (E.T.S.) eta Bizkaiko Garraio Partzuergoari (C.T.B.)–
- “1/2006 Legea, *Urarena*”; horren arabera, Ingurumen Sailaren mendeko Lurralde Plangintzako Sailaren URA Uraren Euskal Agentziari.
- “39/2003 Legea, *Trenbideen Sektoreari buruzkoa*”; horren arabera, Euskal Trenbide Sareari eta C.T.B.ri.
- “32/2003 Legea, *Telekomunikazioen Lege Orokorra*”; horren arabera, Industria Ministerioko Telekomunikazioen Estatuko Idazkaritzari.
- “Legegintzako 2/2008 Errege Dekretua, *Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duena*”; horren arabera, Defentsa Ministerioari, berrikuspenak Defentsa Nazionalari atxikitako lurraldeetan, eraikuntzetan eta instalazioetan sortutako eraginari dagokienez.
- “3/1994 Foru Araua, *mendiei eta babestutako natura guneen administrazioari buruzkoa*”; horren arabera, Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuari.

## V.3- BIZTANLERIAREN ZENBAKETAREN ZIURTAGIRIA ESKATZEA.

Udalak Estatistika Sailaren Udal Erroldari Biztanleria Zenbatzeko Ziurtagiria eskatuko dio.

## V.4- HASIERAKO IDAZKETAREN AGIRIARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.

Udaleko zerbitzu teknikoek HAPOren Berrikuspenaren Hasierako Idazketaren agiriari buruzko edukia aztertzeke txostena egingo dute.

## V.5- HAPO-REN BERRIKUSPENA HASIERA BATEAN ONARTZEKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIA.

Udaleko Osoko Bilkurak agiriari hasierako onespena emango dio eta agiri hori jendaurrean jartzeko erabakia hartuko du, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Akordio honek berarekin ekarriko du edozein eratako onspenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea, bi urteko gehieneko epealdian, planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako.

## V.6- HAINBAT JARDUERA.

### V.6.a.- HERRI-ADMINISTRAZIO ESKUDUNEI KONTSULTA EGITEA.

Berrikuspenaren hasierako onspenaren ondoren, txostenak eskatuko zaizkie LHLren arabera eskumen sektorialak dituzten herri-administrazioei:

- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, babes zibilar buruzko Larrialdi eta Meteorologiari buruz.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzari, Kultura Ondarearen Zentroari: kultura ondareari buruz.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari: mendiei, nekazaritzari, hezeguneei, ibaiei, kostaldee, etxebizitza kopuruari buruz.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari: babes ofizialeko etxebizitzari buruz.
- Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari: ekonomia jarduerari buruz.
- Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Departamentuari: errepideei buruz.
- Foru Aldundiko Kultura Departamentuari: kultura ondareari buruz.
- Foru Aldundiko Nekazaritza Departamentuari: natura inguruneari buruz.
- Foru Aldundiko Lehendakaritza Departamentuari: Bilbo Metropolitarraren LPPri buruz.
- E.T.S. eta C.T.B.ri: Metro Bilbao konpainiaren sistema orokorrari buruz.

- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasbazter Mugaketaren bitartez: itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoari eta haren zortasun-eremuei buruz.
- Sustapen Ministerioari Abiazio Zibileko Zuzendaritzari: Bilboko aireportuko zerbitzuguneari buruz.
- Bilboko Portuko Agintaritzari: portu erabilerek eragindako lurzoruei buruz.

Halaber, txostenak eskatuko dira, ondoren zerrendatzen diren arau sektorialen arabera:

- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko URA Uraren Euskal Agentziaren "Urei buruzko 1/2006 Legea"; horren arabera, udal plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesa eta erabileraren arteko harremanari buruz.
- "Telekomunikazioei buruzko 32 / 2003 Lege Orokorra"; horren arabera, Industria Ministerioari Telekomunikazioen Estatuko Idazkaritzari.
- "Legegintzako 2/2008 Errege Dekretua, Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duena"; horren arabera, Defentsa Ministerioari, berrikuspenak Defentsa Nazionalari atxikitako lurraldeetan, eraikinetan eta instalazioetan sortutako eraginari buruz.

#### V.6.b.- HERRI-ADMINISTRAZIOEI JAKINARAZPENA HELARAZTEA.

Plan Orokorraren Berrikuspenaren hasierako onespina udalerrian ondasunak dituzten Herri-administrazio guztiei jakinaraziko zaie, 33/2003 Legea betez.

#### V.6.c.- HASIERAKO AGIRIA JENDAURREAN JARTZEA.

Hasierako agiria onartu ondoren, Udalak Hasierako agiriaren edukia azaltzeko hitzaldi publiko orokorra antolatuko du, eta beste hiru hitzaldi osagarri, udalerriko Arlo bakoitzeko bana.

Hitzaldi bakoitzean, dokumentazio grafiko eta idatzizko dokumentazio egokia proiektatuz, Plan Orokorra Berrikusteko proposamenaren eduki eta erabaki garrantzitsuenak azalduko dira. Informazioa, lehenik, agiriaren oinarriko helburuen azalpen orokor eta global batekin antolatuko da, eta ondoren, balizko hiri-erreforma eta berrikuntzako jardueri, proposatutako hirigintza-garapeneri eta etxebizitza kopuruaren kuantifikazioari eta, hala badagokio, industria eta zerbitzuen sektoreetan sortutako lanpostuen kuantifikazioari dagozkien aldeak landuko dira. Horrez gain, garraioaren egiturari eta lurzoru okupatzeko proposamenek eragindako bidaiei buruzko azalpena emango da.

Hirigintzako aldeei buruzko informazio saioa amaitzeko, zuzkidura publikoetan dauden estandarrei eta plangintzako Hasierako agiriak proposatutako estandarrei buruzko azalpena eskainiko da, horietarako indarrean dauden lege-xedapenak eta erregelamenduko xedapenak nola betetzen diren aztertuz.

Aipatutako saioetan Ingurumen-eraginaren Baterako Ebaluazioaren Azterlana ere azalduko da.

Arlo bakoitzari buruzko berariazko hitzaldietan bereziki azpimarratuko dira Arlo horri dagozkion aldeak.

Era berean, bi hilabeteko epean zehar, ordura arte burututako lana deskribatzen eta laburtzen duten materialak jendaurrean jarriko dira, horretarako egokitzen diren lokaletan. Idazketa-taldea arduratuko da aipatutako informazio-panelen dokumentazioaz. Idazketa-taldeko bi kide sei orduz izango dira (3 goizez eta 3 arratsalde), sei lanalditan, erakusketan, bisitariak kontsultatu nahi dituzten zalantza guztiak argitzeko. Sei lanaldiak elkarren ondoko bi egunetako hiru multzotan antolatuko dira.

Hasierako agiriaren edukia euskarri informatikoan jasoko da, jendearen artean, oro har, gehien zabalduko eta gehien erabiliko programekin; aipatutako informazioa Udalaren Web-orrialdean zintzilikatuko da, kontsultatu eta erreproduzitu ahal izateko.

Udalak, jendaurrean jarritako lanak, hitzaldiak eta Udalaren Web-orrialdean ipinitako informazioa zabaltzeko kanpaina abiatuko du. Horien guztien zabalkunde publikoa egiteko, Hasierako Onespenaren Agiria jendaurrean jartzei eta Hasiera Batean onartutako Plan Orokorraren Berrikuspenaren edukiari buruzko iragarkia jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiena duten egunkarietan.

#### V.7.- AHOLKU-BATZORDEARI HASIERAKO IDAZKETARI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.

LHLren arabera, Aholku-batzordeak, hasi ondoren, HAPOn berrikuspena idazten hasi dela jakinaraziko du. Udal-plangintzako Aholku-batzordeari buruzko udal araudiaren arabera, behin Hasierako Idazketa onartu ondoren, batzorde horrek nahitaez egin behar du horri buruzko txostena.

Plan Orokorraren Berrikuspenaren Hasierako Idazketa onartu ondoren, eta lana Udaltzari entregatu zaionetik 15 eguneko gehienezko epearen barruan, Udaltzak Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari deialdia egingo dio, aipatutako informazioa entregatuz eta idazketa-taldeari eskatuz azal diezaiola Batzordeari Hasierako Idazketari buruzko edukia.

Ondoren, jasotako agiriei buruzko txostena egingo du Batzordeak.

#### V.8- IDAZKETA-TALDEARI ALEGAZIOAK BIDALTZEA.

HAPOren Berrikuspenaren hasierako agiriari egindako alegazioak bidaliko dizkio Udalak idazketa-taldeari.

#### V.9- ALEGAZIOEI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN BANAKAKO TXOSTENAK.

Plan Orokorren Berrikuspenaren agiria hasiera batean onartu ondorengo alegazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, idazketa-taldeak, banaka, aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu eta Udalari aipatutako txostenak bidaliko dizkio, alegazioak aurkeztu dituztenei erantzunak jakinarazteko prozedura bete ahal izateko.

#### V.10- HAINBAT JARDUERA.

##### V.10.a.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUARI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN LAPURPEN TXOSTENA.

Plan Orokorren Berrikuspena idatziko duen taldeak Herritarrek Parte Hartzeko prozesuari eta aurkeztutako alegazioei buruzko txosten labur bat idatziko du; txosten horretan, modu orokorrean baloratuko dira jasotako proposamenak.

##### V.10.b.- HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUARI BURUZKO UDAL ZERBITZU TEKNIKOEN TXOSTENA.

Udaleko zerbitzu teknikoek Herritarrek Parte Hartzeko prozesuari eta aurkeztutako alegazioei buruzko txosten labur bat idatziko dute; txosten horretan, modu orokorrean baloratuko dira jasotako proposamenak.

#### V.11- AHOLKU-BATZORDEARI INFORMAZIOA BIDALTZEA.

Hasierako Onespenearen Agiria jendaurrean jarri eta alegazioak jaso eta horiek Behin-behinean Onartzeko Agirian sartzeari buruzko idazketa-taldearen eta zerbitzu teknikoek txostenekin, Getxoko Udal-plangintzako Aholku-batzordeari aipatutako dokumentazioa bidaliko dio Udalak.

Aholku-batzordeak agiriari buruzko azalpenik behar izanez gero, idazketa-taldeari eta/edo Udaleko teknikoei bilera baterako deialdia egingo zaie.

#### V.x- PARTE-HARTZE PROZESUA ERREPIKATZEKO AUKERA.

LHLren 90.6. artikulua araber, "Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, Udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespene eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik" beraz, kasua hori bada, **V.5, V.6, V.7, V.8, V.9, V.10** eta **V.11** aldiak berriz errepikatu beharko lirake.

### VI.- HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BEHIN-BEHINGOZ ONARTZEA.

Fase honen helburu nagusia da Getxoko HAPOren berrikuspenaren Behin-behineko onespenean herritarren parte-hartzearen oinarri izango diren funtsen definizioa ezartzea. Ondoren, lanen eta jardueren proposatutako kronograma zehazten da:

VI.1	HAPOren Berrikuspena behin-behingo onartzeko akordioa.			
VI.2	a. Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea (EHLAB) agiriak eskatzea.	b. Ingurumen Sailburuordetzari Behin Betiko Txostena eskatzea.	c. Kontsulta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari.	d. Jakinarazpena Herri-administrazioei (HH AA). Herri-administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legea.

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta **kolore horiz** azpimarratuko dira Udalerako eta kolore **urdinez**, berriz, idazketa-talderako.

Herritarren eta erakunde parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharreko jarduerak ezartzeko; eta **kolore berdez** adieraziko dira.

Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

### VI.1- HAPO-REN BERRIKUSPENA BEHIN-BEHINGOZ ONARTZEKO ERABAKIA.

Osoko Bilkuraren akordioaren bitartez, HAPO Berrikusteko agiria behin-behingo onartuko da, onartutako alegazioen arabera eta alegazio horiek onartzearen ondorioz egin beharreko aldaketak adieraziz. Erabakia eta edukia Udalaren Web-orrialdean argitaratuko dira.

### VI.2- HAINBAT JARDUERA

#### VI.2.a.- EHLAB-I AGIRIEI BURUZKO KONTSULTA EGITEA.

Herritarrek parte hartzeko ekintza hau Plan Orokorren Berrikuspena Behin-behingo onartu ondoren egingo da; Behin-behineko Onespenaren agiria, izapidetu beharreko gainerako agiriekin batera, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari (EHLAB) bidaliko zaio, organo horrek dagokion txostena egin dezan.

#### VI.2.b.- INGURUMEN SAILBURUORDETZARI KONTSULTA EGITEA.

Halaber, Plan Orokorren Berrikuspena Behin-behingo onartu ondoren, agiri hori Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio, administrazio horrek Behin betiko Txostena egin dezan.

#### VI.2.c.- NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA INGURUMEN MINISTERIOARI KONTSULTA EGITEA.

Parte hartzeko ekintza hau Plan Orokorren Berrikuspena Behin-behingo onartu ondoren egingo da; agiri hori Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari bidaliko zaio, administrazio horrek dagokion txostena egin dezan.

#### VI.2.d.- HERRI-ADMINISTRAZIOEI JAKINARAZPENA EGITEA.

Plan Orokorren Berrikuspenaren behin-behineko onespena udalerrian ondasunak dituzten Herri-administrazio guztiei jakinaraziko zaie, 33/2003 Legea betez.

### VII.- HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Fase honen helburu nagusia da Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko prozesuan Herritarren Parte-hartzearen oinarri izango diren funtsen definizioa ezartzea; baita aipatutako berrikuspenaren Behin betiko Onespenerako aldi beharrezko informazioa lortzea eta laburtzea ere. Honakoa da lanen eta jardueren proposatutako kronograma:

VII.1	EHLABen, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren eta Ingurumen Sailburuordetzaren txostenak jasotzea.		
VII.2	Idazketa-taldearen txostena, txosten sektoriale buruzko balorazioarekin.		
VII.3	Txosten sektoriale eta idazketa-taldearen azterketa txostenari buruzko udal zerbitzu teknikoaren txostenak.		
VII.4	HAPOren Berrikuspena Behin betiko onartzea Ingurumen-eraginari buruzko Adierazpenerako Eskumena duen Udal Organoaren Erabakiarekin.		
VII.5	Ingurumen-eraginaren Adierazpena idaztea.		
VII.6	Osoko bilkuraren behin betiko akordioaren araberako Testuategina idaztea.		
VII.7	a. HAPOren Berrikuspenari buruzko Testuategina Foru Aldundian erregistratzea.		b. Testuategina Eusko Jaurlaritzari bidaltzea.
VII.8	a. HAPOren Berrikuspena argitaratzea, 2/2006 LHLren arabera.	b. Jakinarazpena Herri-administrazioei (HH AA). Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legea.	c. Ingurumen-eraginaren Adierazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea (BAO).
VII.9	Testuategina jendaurrean jartzea.		

Herritarrek parte hartzeko programa garatzeko kronograma honetan jasotzen diren eta zuzenean parte-hartzeari ez dagozkion lanak ez dira ondorengo ataletan garatuko, ez dutelako partaidetzarako metodologiarik eta jarduerarik behar; eta kolore horiz azpimarratuko dira Udalerako eta kolore urdinez, berriz, idazketa-talderako. Herritarren eta erakundearen parte-hartzeari dagozkion kronogramaren ekintzak hurrengo ataletan garatuko dira, metodologia eta burutu beharreko jarduerak ezartzeko; eta kolore berdez adieraziko dira. Denboran paraleloak diren ekintzak lerro berean ipiniko dira.

## VII.1- EHLAB-EN, NEKAZARITZA MINISTERIOAREN ETA INGURUMEN SAILBURUORDETZAREN TXOSTENAK JASOTZEA.

Udalak EHLABen Txostena, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren behin betiko txostena eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren behin betiko txostena jasoko ditu.

## VII.2- SEKTORE-TXOSTENEI BURUZKO IDAZKETA-TALDEAREN TXOSTENA.

Idazketa-taldeak, goian jasotako sektore-txostenen ondorioak aztertuko ditu.

## VII.3- SEKTORE-TXOSTENEI ETA IDAZKETA-TALDEAREN TXOSTENARI BURUZKO UDAL TXOSTEN TEKNIKOAK.

Udaleko zerbitzu teknikoek sektoreek bidalitako txostenei buruzko eta azken hauei buruz idazketa-taldeak egindako txostenari buruzko txostenak egingo dituzte.

## VII.4- HAPO-REN BERRIKUSPENA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

LHLren arabera, Udalak HAPOren berrikuspena behin betiko onartu ahal izango du. 183//2003 Dekretuaren arabera, Ingurumen-eraginaren Adierazpena idazteko arauak jaso beharko ditu Erabaki horrek.

## VII.5- INGURUMEN-ERAGINAREN ADIERAZPENA IDAZTEA.

183/2003 Dekretuaren arabera, Ingurumen-eraginaren Adierazpena idatzi beharko da, honako hauek laburbilduz: IIBEA barne hartzea, Sailburuordetzaren behin betiko txostena eta jendeak ingurumenari buruz adierazitako oharrak. Ingurumen-eraginaren Adierazpena BAOn argitaratuko da.

## VII.6- TESTU BATEGINA IDAZTEA, UDAL ERABAKIAREN ARABERA.

HAPOren Berrikuspena behin betiko onartzeko osoko bilkuraren erabakiaren jarraibideen arabera, idazketa-taldeak egingo du Testu Bategina.

## VII.7-HAINBAT JARDUERA

### VII.7.a.- HAPO-RI BURUZKO TESTU BATEGINA FORU ALDUNDIAN ERREGISTRATZEA.

Testu Bategina idatzi ondoren, Plangintzako administrazio Erregistroan gorde dezaten bidaliko du testua Udalak.

### VII.7.b.- TESTU BATEGINA EUSKO JAURLARITZARI BIDALTZEA.

Testu Bategina idatzi ondoren, Udalak Eusko Jaurlaritzari behin betiko bertsioa bidaliko dio.

## VII.8- ARGITALPENAK ETA JAKINARAZPENAK.

### VII.8.a.- HAPO-REN BERRIKUSPENA ARGITARATZEA.

Plan Orokorraren berrikuspena behin betiko onartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira erabakiaren eduki osoa, hirigintzako arauak, lizentziak etete eta altxatzeko erabakiak, eta berrikusitako Hiri-antolamenduko Plan Orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren aurretik aipatutako erregistroan gorde dela jakinaraziko da. Era berean, Behin betiko Onespenaren erabakia gehien hedatutako egunkarietan argitaratuko da.

### VII.8.b.- HERRI-ADMINISTRAZIOEI (HH AA) JAKINARAZPENA EGITEA.

Plan Orokorraren Berrikuspenaren Behin Betiko Onespena udalerrian ondasunak dituzten Herri-administrazio guztiei jakinaraziko zaie, 33/2003 Legea betez.

### VII.8.c.- INGURUMEN-ERAGINAREN ADIERAZPENA BAO-N ARGITARATZEA.

183/2003 Dekretuak ezartzen duen obligazioa betez, HAPOren berrikuspena behin betiko onartzeko erabakia hartu ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Ingurumen-eraginaren Adierazpena.

## VII.9- AGIRI BATEGINA JENDAURREAN JARTZEA.

Plan Orokorraren Berrikuspena indarrean sartu ondoren, Getxoko Udalak testu bategina jendaurrean jarriko du, udalerriri behin betiko agiria ezagutzera emateko helburuarekin.

Hori guztia, herritarrek indarreko Plan Orokorra ezagutzeko helburuarekin, zabalkunderako egin daitezkeen bestelako jarduketak alde batera utzi gabe.